

TOKIKOM

2017ko uztaila | 172. zenbakia

ai!kar!

txorierriko izkaria

**Etxeko
garagardoa**

JOSEINA ETXEBERRIA LAGATZU EGUNA LEZAMAKO ETA LARRABETZUKO JAIAK





euskara praktikoa

Txorierriko AEK euskaltegia

Maila guztiak EGA, A1,A2,B1,B2 ETA C1.

**Talde txikiak eta ikasteko giro ona.
Eskarmentu handiko irakasleak. herrian
bertan ikasteko aukera.**

Autoikaskuntza

On-line ikastaroa

Matrikula zabalik irailaren 28ra arte

Gorbeia kalea 5 behea, 48160. derio-bizkaia
(Anbulategi ondoan gaude)

94 454 39 67 / 607 598 794

txepetxa@aek.eus

DIRU-LAGUNTZAK

EUSKO JAURLARITZA:
maila egiaztatuz gero.

BIZKAIKO ALDUNDIA:
deskontu-bonuak.

**Txorierriko Mankomunitatea
eta Larrabetzuko Udala**
(beka gehigarria)

4	Eritxiak
5	Laburrak eta albisteak
11	Irudietan... Bimba, asteme soziala
12	Gurean izan da... Joseina Etxeberria, esataria
14	Lagatzu Eguna
16	Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitatea
18	Etxeko garagardoa
22	Larrabetzuko jaiak
27	Lezamako jaiak
32	Taldeak/Elkarteak... Sondika KE
34	Teknologia... Euskal blogintzaren harira
35	Aikorrizketa... Filosofia apur bat
36	Sukaldaritza
37	Denborapasa
38	Agenda



14 Lagatzu Eguna



22 Larrabetzu eta Lezamako jaiak



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral



diruz lagundutako aldizkaria

aikor!
txorierriko aldizkaria

Argitaratzailea: TOTOAN,
Txorierriko Euskara Elkarte
Federazioa (Lagatzu, Zorritzeta,
Arrekikili, Tximintx eta Altzora)
Tel.: 94 452 34 47 / 688 86 41 35
aikortxori@aikor.com /
www.aikor.eus

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio buruak: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Maite Lekerika, Gaizka Eguzkitza, Juan Luis Goikoetxea
eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Imanol Álvarez, Jon Ander Rola, Idoia Andrés, Jon
Goikouria Larrabeiti, Gaizka Peñafiel, Itallen bertso eskola, IZAE
Zamudioko argazkilaritza taldea, Iurdana Acasuso eta Jose Angel Men-
txaka

Zuzentzaileak: Joseba Butroe, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Atxutegi (686 58 92 38)

Banaketa: Egunon

Maketatzailea: Gaizka Eguzkitza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 7.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esa-
nen edota eritzien erantzukizunik.

Sokatira mistoan

Feminismo terminoa gehien erabili eta gutxien ezagutzen dugunen artean dago, zalantzarik gabe. Hiztegiak dio gizon eta emakumeen arteko eskubide berdintasuna aldarrikatzen duen mugimendua dela. Baina haize berrien beldur direnen artean matxismoaren antonimo moduan erabiltzen da sarri, zabaldutako mamuek gizonari estatua mantentzen lagundu diezaiooten. Sokaren beste muturrean, arazoa desberdintasun orotan dagoela defendatzen dutenak. Gehiegizko kritikak eta aldarrikapenak ez diote mesederik egiten justua eta beharrezkoa den eskakizun bati.

Hitzaldi batean entzundako bi adibidetatik abiatu nahi dut, desberdinak izanik garrantzi handiko bi auzi plazaratzen dituztelako. Alde batetik, negozioen munduan gizonak elkarri eskua eman baina emakumei bi muxu ematea kritikatu zen. Inozoa bezain arriskutsua litza-teke gizon eta emakumeak desberdintzen dituzten elementu kultural edo lin-

guistikoen garrantzia gutxiestea. Baina aldarrikapen garrantzitsuen kalterako iruditzen zait hauetan gehiegi zentratzea. Italian, adibidez, mutilek muxuak ematen dizkiote elkarri eta egoera ez da gurea baino hobea. Berdintasunaren bilaketaren kontzepzio sinplista baten emaitzak gaur egungo gorputzaren gurtzean ikus dezakegu. Lehen emakumeak zeuden L'orealen diktadurapean, orain denak. Berdinak gara! Inozotasunean berdin.

Bestetik, hitzaldi horretan ere aldarrikatu zen emakumeek gizonak baino dohain handiagoak zituztela aginterako. Errespetuz bada, ulertu dezaket norbaitek hori esatea, generalizazioak eta politikoki ez zuzenak diren iritziak aurrera egiten laguntzen baigaituzte askotan. Baina ezin zaie batzuei onartu eta beste-ei ez. Eta batez ere, bi generoek aginte postuetara heltzeko aukera berdinak izatea bermatu behar du gizarteak. Besterik ez.



IMANOL ALVAREZ
(Filosofia irakaslea)

Argi dago genero arazo larria dugula gizartearen. Jakin ere badakit, nahiz eta arreata jarri dudana tokian jarri, emakumeen kontrako eraso larri eta sotilek gure egunerokotasuna modu tamalgarrian bustitzen jarraitzen dutela. Baina sokatik neurririk gabe tiratzeak feminismoari beldur dioten guztien onurarako baino ez da askotan, artalde fidelak sokaren beste muturrean tiratzen jarraitzeko pentsua. Eta gure helburua ez da sokatiran irabaztea, beste taldekoak gure taldera pasatzea baizik.

Duela hilabete batzuk, Espainiako alderdi sozialistak bere kongresuan erabaki zuen Espainia nazio anitza dela. Ordua izan da! Ehun urte behar izan dituzte nabaria den egoera bat onartzeko. Hilabete batzuk lehenago alderdiko idazkari nagusia aukeratzeko hauteskundetan egindako debaterik unerik komentatuenetarikoa Patxi Lopezek Sanchezi galdetu zion ea zer zen nazio bat. Eta honek, duda-mudan, sentimendu bat zela erantzun zion, katalanek eta euskaldunek ge-neukan sentimendu bat.

Orduan Patxi zer esaten zuen ere ez zekiela keinu eginez, argitu zion bi motatako nazioak daudela, nazio-estatuak eta na-

Nazioa



JON ANDER ROLA
(Irakaslea)

zio kulturalak; subiranotasun eskubidearekin lehenak eta beste nazio batzuekin eskubide hori partekatzen zutenak besteak. Horraino denok gaude konforme Patxi, baina beste gauza bat argitzea falta zitzaizun: Nork edo zerk erabakitzen duen halakoak ala bestelakoak diren. Jainkoak? Inperioak? Historiak? Konstituzioak? Agintari batek?

Ez Jauna! Nazio horietako herritarren borondateak, nahiak, asmoak. Haiek eta ez beste inork erabaki behar dute. Inondik inora ezin dena onartu da nazio baten etorkizuna inguruko beste nazio handiago batek erabakitzea. Horrek beste izen bat dauka.



Bideratze-lanak, Asua ibaian, Sondikan, uholdeak saihesteko

Lanak Industrias Alba eta Sangroniz zubiaren artean egingo dira, eta tarte horretan ura husteko ahalmena hobetzea edukiko dute helburu. Horretarako, bideratze berri bat egingo da gaur egungoa ordezkatzeko. Izan ere, azken horrek ahalmen hidrauliko txikia du eta bere estruktura oso ahula da. Lanei esker, uholdeek inguruan sortzen dituzten kalteak saihestuko dira.

Bideratze berriak ibaiartzei eutsiko die era indarberrituan, eta 15 metroko zabalerako ibilgu-tartea sortuko du. Era berean, hormigoi armatuzko metro biko zabalerako balkoi-hegala eraikiko da,

inguruan jarduera industrialei eustea ahalbidetzeko. Tarte horretan dauden zubi biak ere ordezkatzeko dira. Berriak bideratze berriaren zabalerara egokituko dira eta ahalmen handiagoa edukiko dute ura husteko. Lanek ez dute ibilguan eraginik edukiko, baina ibaiertzetan lurra eta hormigoia kenduko dira. Ibaiertzak apainduko dira paisaia ahalik eta ondoen integrazteko.

Lanak Sondikako Udala eta URA agentziaren arteko akordioari esker egingo dira. Udalak URAREN esku ipiniko du lurra, eta agentziak aurtun lizitatuko ditu lanak, horretarako 2,9 milioi euroko aurrekontua duela.

CD Loiu 75 urte bete ditu

Eta urteurrenaren haritik ospakizun-ekitaldia antolatuta da irailaren 9rako. Ospatzeko eguna izango da, baita eskerrak eman eta lana aintzat hartzeko eguna ere. Eta, horrela, omenaldia egingo diote Jose Urrutikoetxea "Urti"ri, taldeko presidenteari. Urtik 84 urte ditu eta Loiu-ko klubean 16 urte zituenetik darma: jokalaria, hasieran; entrenatzaile, 1962tik 1975era; eta presidente, ordutik hona. Klubeko zuzendari bik ere jasoko dute omenaldia: alde batetik, Angel Urrutikoetxeak, Loiu urteak daramatzana; eta, bestetik, Jose Mari Kareaga, entrenatzailea izan dena. Kareagak 80 urte baino gehiago ditu eta gaur egun gazteak entrenatzen jarraitzen du.

Omenaldien ondoren, goizeko 11etan beterranoen partidua jokatu-ko da Athleticeko futbolari ohien kontra, eta eguerdiko 2:30ean herri bazkaria egongo da. Bazkariari buruzko informazioa eskuratzeko, 94 471 04 33 telefono zenbakira deitu daiteke, edo futbol zelaira hurbildu. Bazkalostea musikaz giro-tuko da.

Bestalde, Loiu Laztana elkarteak 75 urte hauetan Loiu-ko futbol taldeari buruz argitaratu diren albisteak eta aipamenak, baita herrian gertatu diren eta futbolari lotuta dauden pasadizoak ere batu ditu liburu batean. Liburu hori salgai ipiniko da.



AmAr
ileapaindegia

Asteartea-ostiralea:
9:00-19:00
Laburunbata:
8:00-13:30

Urbe plaza, 1 behea
Zamudio
94 4520419

Aresti
Harategia
Urdaitegia

Oiz, 1. Zamudio
94 452 00 06

BIDE-GORRI

Txinbo kalea, 9
48170 ZAMUDIO
94 452 26 75

Askotariko pintxoak - Plater konbinatuak
8:00etatik irekia
WiFi gunea

Carrefour
express

ORDUTEGIA
Astelehenetik ostiralera arte
9:00-14:30 / 17:00-20:30
Larunbata
9:00-14:30

Pago kalea, 5
48170 ZAMUDIO

GAMINIZ
JATETXEA

Tel/Fax: 944 317 025
email: gaminiz@gaminiz.com

Ibaizabal 212. Parke Teknologikoa
48170 Zamudio - Bizkaia
GPS: 2°51'41" N 43°17'37" W

www.gaminiz.com

Lutxana eta Sondika arteko tren, abendura arte

Euskotrenek gutxienez Gabonak arte mantenduko du Lutxana eta Sondika arteko tren-zerbitzua, hasieran iragarritakoa baino hilabete bi gehiago, hain zuzen ere. Zerbitzua duela urte bi jarri zen martxan, eta Lezamako trenaren lineako lanek iraun zuten bitartean ibili da. Lanak bukatutakoan, Euskotrenek iragarri zuen tren-zerbitzua sei hilabetez mantenduko zuela, errentagarria zen ala ez erabakitzeko. Eta azkenean, badirudi errentagarria dela. Euskotrenetik jakinarazitakoaren arabera, zerbitzuak jarraitu egingo du baina, ziu-rrerik, maiztasunak eta tren-kopurua erabiltzaileen beharrianetara egokituko dira, linearen efizientzia bermatzeko. Gainera, esan dute "trenak ahalik eta oztopo gutxien sortzea" nahi dutela, "Txorierrin zehar trenbide-pasagune batzuetatik igarotzen delako". Normalean, egunero 50-70 lagunek erabiltzen dute zerbitzua, eta Erandio eta Loiuko udalek eskatu dute Lutxanako loturari eustea.

Ez da Lutxanako trenaren ixten den lehenengo aldia. 1975ean zerbitzua etenda egon zen, trenbideko egoera txarra zela-eta. Trena 1980an inauguratu zen berriro, baina 1997an bigarren aldiz kendu zen, bidaiari gutxi zegoelako.



Bidegabeko kaleratzea eskatzen dute Ibarrondoko kaleratuek

Gruas Ibarrondo enpresak sei langile kaleratu ditu aurtun. Kaleratuek kontatu digutenaren arabera, arazoak 2012-2013an hasi ziren. Diru-galerak argudiatuta, enpresak langileei jakinarazi zien soldata gordina % 10 jaitsiko ziela. Langileek talde-salaketa ipini zuten eta hori irabazi ere egin zuten 2014an, baina, kendutako dirua eskuratzeko, hurrengo pausoa banakako salaketa ipintzea zela jakinarazi zieten sindikatutik, eta, errepresalien beldur, inor ez zen ausartu hori egitera. Beren esanetan, enpresak aukera aprobeztatu zuen dietak ere kentzeko.

Aurtengo otsailean bitarteko sindikalak enpresa-buruekin batu ziren, egoera aztertzeko. Antza, diru-akordioa egin zuten eta bitarteko sindikalak, lagun bi, kalera joan ziren. Horren ostean, eta beti, lanik ezaren ondorioz, tartean arazo ekonomikoak daudela argudiatuta, beste lau langile kaleratu dituzte. "Lana egon badago. Badakigu lankideek lan handia dutela, eta, gainera, aparkalekuan ez da garabirik ikusten. Uste dugu kaleratu egin gaituztela, langileen kexak isilarazteko".

Kaleratutako lau langileak 40 urtetik 55 urtera bitartekoak dira eta enpresan 20-16 urte eman dituzte. Urteko 20 egun ordaindu diete indemnizaziotzat, bidezko kaleratzea izango balitz moduan. "Guk ez dugu enpresara itzuli nahi. Gure ustez, bidegabeko kaleratzea izan da, enpresak ez duelako diru-galerarik. Hori dela-eta, salaketa ipini diogu eta eskatzen dugu bidegabeko kaleratzeari dagokion indemnizazioa ordaintzeko: hau da, urteko 45 egun 2012ko otsailera arte; eta handik aurrera, 33 egun". Epaiketa datorren urtean izango da eta, bitartean, ekainetik egunero batzen dira Asuan, enpresaren aurrean, eta Sondika herrian bertan, enpresak aseguru kontratatuta duen aseguru-etxearen aurrean. "Hemen gaude, gurea denaren eta gure duintasunaren alde borrokatzen. Hau doan irten ez daki". Horren haritik sindikoztarrek eta erandioztarrek emandako babesak eta laguntza eskertu dute.

Bestalde, enpresarekin ipini gara harremanetan euren ikuspuntua ezagutzeko. Edizio hau itxi orduko, ez dugu erantzunik jaso.

EGUNEKO MENUA

lehenengo platera
bigarren platera
postrea
ogia
edaria

9€

Bestorrene 5, Behe 48160 DERIO
T: 94 454 55 55

HAUR-MODA

TxIMELETA

Gernikako Arbola, 8 DERIO
94 454 14 35

Familia osorako
kalitatezko arreta,
zure esku

Zainatze Beharria
Logopedia
Podologia
Kiroprasiak

**clínica dental
ZAINDUZ
hortz klinika**

Txarretti elorbidea, 8 - Lortza | Antsaga enakina | 48160 DERIO
94 454 01 01 | 657 79 54 45
info@dentalezaindus.com | www.dentalezaindus.com

Gaztelumendiko istripua ikertzen dabilta

Larrabetzuko Udaleko udalbatzak aho batez onartu zuen Gaztelumendi mendian dagoen gurutze frankista lurrera botako zutela, orain dela hilabete batzuk. Uztailaren 10ean, eraiste-lanei ekin zietenean, harriek segurtasun-perimettoa gainditu zuten eta han bilduta zeuden lagunen gainean erori ziren. Ondorioz, lau lagunek min hartu zuten. Horietako hiru ospitalera eraman eta egunean bertan eman zieten alta. Laugarren zaurituak, Maria Luisa Mezo EAJko zinegotziak, berriz, hanka biak hautsi zituen. Gurutzetako ospitalera eraman eta hurrengo egunetan hanka bateko ebakuntza egin zioten. Iñigo Gaztelu Larrabe-

tzuko alkateak kontatu digunaren arabera, 10-15 egunen buruan beste hankako ebakuntza egingo diote. Mezok ospitalean jarraitzen du.

Alkatearen esanetan, beharrezko neurri guztiak, segurtasunezkoak zein teknikoak, bete ziren, gurutzea lurrera botatzeko. Hala ere, zoritxarreko istripua gertatu zen, eta hori eta bere kausak argitzeko, ikerketa egiteko eskatu diete kanpoko enpresa biri. Era berean, udal teknikariak ere istripuaren zergatiak aztertzen dabilta.



Larrondoko jaiak

Irailak 1, barikua

- 18:00 Txupinazoa
- 18:00 "Joseba Bilbao" VI. Futbol Hiruko Torneo: CD Loiu - SD Erandio - CD La Arboleda
- 19:30 Pelikula umeentzat
- 21:30 Tortilla Txapelketa. Tortillak aurkeztea eta sariak ematea
- 22:30 Berbena, Trikitio taldearekin

Irailak 2, zapatua

- 14:30 Herri bazkaria. Ondoren, mus, tute eta briska txapelketak
- 16:00 Pelota txapelketak
- 17:00 Jolasak umeentzat eta herri kirolak
- 22:00 Haurren moztorro festa. Gaia: Larrondo zirko bat da
- 23:00 Berbena, Garilak 26 taldearekin

Irailak 3, domeka

- 12:00 Auzoko hildakoen oroimenezko meza eta ohorezko aureskua
- 13:00 Gorantzaileak dantza taldearen emanaldia
- 13:00 Omenaldia auzoko nagusiei eta kopaua
- 14:00 XXVIII. Piper Txapelketa, piperak aurkeztea eta sariak ematea
- 14:00-15:00 Paella Txapelketa, paellak aurkeztea eta sariak ematea
- 16:30 Bits jaia
- 17:30 Disko festa, Xaiborrekin
- 21:00 Jaien amaiera



Garilak 26 taldea.

Sandoniko jaiak

Irailak 1, barikua

- 19:00 Txupinazoa
- 20:00 Idi-probak
- Txitxi-burruntzia eta Kantarelux taldea

Irailak 2, zapatua

- Umeentzako tailerrak eta puzgarriak
- 12:00 Meza, ermitan
- 13:00 Euskal dantzak, Hiru Bat taldearen eskutik
- 14:00 Paellak aurkeztea
- 16:00 Mus txapelketa
- Sariak ematea, txitxi-burruntzia eta erromeria, Oxe Mendizabalekin

Irailak 3, domeka

- 12:30 Meza
- Edadekoei omenaldia eta kopaua
- Euskal kantak


hotela
jaketxea
aretxarte

Teknologi Parkea - Eraikuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefona: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com



Larrabetzuko Gazte Eguna, abuztuak 5

Egunari goizeko 12etan emango diote hasiera. Eguerdiko trikipoteoaren ostean, bazkaria edukiko dute 14:30ean. Arratsaldean, 18:30ean, mural kolektibo bat egingo dute. Hori Baitik azaldu digutenaren arabera, mural horretan Larrabetzun bildutako Gazte Asanbladek hartuko dute parte. "Irudia Hori Baik egingo du, eta parte-hartzaileak hori betetzen joango dira, beren marka edo bereizgarria uzteko". Sakatu elektrotxaranga giroa alaituko du 20:00etatik aurrera, eta 22:00 kalejiran irten eta ekitaldia egingo dute. Plazan kontzertuetan talde hauek hartuko dute parte: Bultz, Willis Drummond eta Los zopilotes txirriak. Horrez gainera, gau osoan zehar djak arituko dira gaztetxean: Dj Reimy, Trapu zikinak eta Dj Kaiku.

Haritz Azurmendi, geldiezina

Izan ere, XCO mendiko modalitatean, eta kadete mailan, Bizkaiko eta Euskadiko txapelak izateaz gainera, 15 urteko lezamarra liderra da Euskadiko Openean eta bigarrena gelditu da Super prestigio internacional proban. Oso emaitza onak lortzen dabil eta oso pozik dago. Gainera, esan digu, aurreko urtean proba solte batzuetan "saiatzegatik" aritu zen arren, aurten lehenengo aldia izan dela txapelketan burubelarri ibili dena. "Urte batzuk barru gauzak aldatuko direla suposatzen dut, baina gaur egun ez dut ez egunerok, ez ordu askorik entrenatzeko beharrik. Beraz, bakarrik probak dudanean entrenatzen dut. Arreta ikasketetan daukat eta denbora libre nahiago dut lagunekin eman. Eta bizikleta gainean igotzen naizenean, disfrutatzen noa; ez sufritzen". Haritz Bizikleta.com taldeko txirrindularia da gaur egun.

Torrelarragoiti, "Kalitatezko enpresa-poligonoa"



"Kalitatezko enpresa-poligonoa" ziurtagiriak industriaguneen kudeaketaren bikaintasuna eta lehiakortasuna hartzen ditu aintzat, eta Enpresa Poligonoen Espainiako Koordinakundeak (CEPE) ematen du. AENOR erakundeak egiaztatzen lanak egiten ditu. Torrelarragoiti Zamudioko industrialdea ziurtagiri berri hau jaso duen Estatuko lehena izan da; "ohore handia", Igotz López alkatearen esanetan. "Pizgarria ere bada instalazioak bikain izateko lanean jarraitzeko, eta laster herriko beste industrialdeak eta Txorierriko osokoek ere ziurtagiria eskuratu dezaten". Era berean, goretsi egin ditu urte hauetan Torrelarragoitiko enpresek emandako laguntza eta egindako lana.

Alexander Arriola SPRiko zuzendari nagusia ere pozik azaldu da eta gogora ekarri du Euskadik kalitatea sustatzeko aspalditik duen konpromisoa, kalitatea balio erantsia baita enpresentzat. Bere iritziz, krisialdiaren ondorioz urte latzak pasatu ondoren, "susperraldia bizi dugula

esateko moduan gaude eta Zamudioko industrialde honek gaur hartu duen ziurtagiria bezalakoak lagungarriak dira susperraldia lehenbailehen gerta dadin".

Luz Emparanza AENORreko Euskadiko zuzendariak industrialdearen kudeatzaileek bertoko enprekin duten harremana goratu du eta azaldu ditu ziurtagiria emateko orduan kontuan hartzen diren alderdiak: oinarritzko hornidura eta zerbitzuak, lurzoruen egokitasuna, segurtasuna eta larrialdien aurrean erantzuteko gaitasunari lotutako alderdiak, eta aholkularitza-zerbitzua, esaterako.

Torrelarragoiti industrialdea 1988an sortu zen, 547.000 metro karratuko azalera du eta bertan 160 enpresa inguru daude. Enpresei eskaintzen zaizkien zerbitzuen artean, hauek aipa daitezke: hondakinen bilketa, gertakarien kudeaketa eta azpiegituren zainketa, informazio eta kudeaketarako proiektuak, nazioarteko tze zerbitzuak, giza baliabideak kudeatzea, eta Networking-a.

ELORRIETA
INSTALACIONES

ETXE- ETA INDUSTRIA-ELEKTRIZITATEA

Urbe kalea, 12 beheko Derio 48160
94 454 03 86

639 57 98 48 - 639 58 25 47

BIZKARGI

TABERNA ETA JAHARIA

Urkiola, 6 DERIO

944541655

ASTIKENEMOTOR

www.ASTIKENEMOTOR.com

DERIO - 946 451 781

La Vía Campesinak bere VII. Nazioarteko konferentzia ospatu du Derion

Mundu osotik etorritako 500 lagun inguru batu ziren uztailaren 16tik 24ra bitartean Derioko Seminarioan, La Vía Campesinaren nazioarteko konferentzian parte hartzeko. Konferentzia zazpigarren aldiz egin da eta bertan mugimenduaren nondik-norakoak aztertu dituzte, eta datozen urteotan jorratu beharreko ildo estrategiko nagusiak ere mahaigaineratu dituzte, hala nola elikadura burujabetza, agroekologia, merkataritza askearen tratatua, eta gazte eta emakume baserritarren erronkak eta garrantzia. La Vía Campesinaren barruan bederatziz eskualde daude: lau, Amerikan; bi, Afrikan; beste bi, Asian; eta bat, Europan, eta konferentzian 10. eskualde baten sorrera ere bultzatu da. Eskualde hori Palestinak eta Afrikako iparraldeak osatzen dute.

“Gure herriak elikatzen ditugu eta mugimendua eraikitzen dugu, mundua aldatzeko” lelopean, zazpi kontinenteetako baserritarren elkarreketako ordezkariak,

nekazariak, indigenak, lur langileak, arrantzaleak... hartu dute parte Seminarioan antolatutako hitzaldi eta mahai-inguruetan, eta euren esperientziak partekatzeak aukera izan dute. Konferentzia lau urterik behin antolatzen da eta helburu hauek ditu: mugimenduaren agenda berritzea eta, kapital eta nekazaritza industrialaren aurrean, mundu osoko nekazarien bizimoduaren eta produkzioaren alde egiten duten ekintzak ezartzea.

EHNE sindikatuak konferentzia antolatzeko ardura eduki du aurten, eta La Vía Campesina mugimenduaren kideei zuzendutako ekintzez gainera, herritarrak munduko nekazarien errealitatera, arazotara eta erronketara hurbiltzeko ekitaldi irekiak ere egon dira. Hala, baserritarren eskubideen urraketa inguruko ikerketa aurkeztu da jendarean, emakume baserritarren ahalgintza eduki dute hizpide, eta arrantzari buruzko dokumentala eman dute, batzuk aipatzearen. Konfe-

rentzian ibili direnak euskal kultura eta ohi-turak ere apur bat ezagutu ahal izan dituzte, izan ere bertsolariak, euskal dantzak eta herri kirolak ere egon dira Seminarioan.

Bergara-Derio

Bestetik, “Txikizioa borrokatu, bertoko elikadura bultzatu” lelopean, eta La Vía Campesinaren konferentziarekin bat eginenez, Euskal Herriko luraren aldeko mugimenduen kideek Bergara-Derio martxa egin zuten ekainaren 14tik 16ra. Lurra eta elikadura burujabetzaren aldeko martxa izan zen, eta Euskal Herria artifizializatutako lur gehien duen Europako herrialdeetako bat dela salatzea eduki zuen helburu. “Hirigintzak, industriagintzak era mota guztietako azpiegitura erraldoiek eragiten dute lur artifizializazioa, eta horren ondorioz, elikadura-ekoizpena oso txikia da. Hori dela-eta, Euskal Herrian jaten denaren % 3 baino ez da bertan ekoizten”, azaldu zuten.



aldekone
hortz klinika
Tel.: 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontologoa

Uribi 7, behea
48160 DERIO (Bizkaia)

—Especialitate guztiak
zentro bakar batean
—Aurrekontua duen
—Especialitatea:
umeak

ADARVE KAFETEGIA

Gosariak
Plater konbinatuak
Pintxoak
GIRO ONA

Sollube, 2 DERIO Tel: 94 608 95 31

Abelino Arraindegia

Gorbea kalea, 4 - 48160 DERIO
T: 94 602 75 25-6

Egitarau anitza antolatu da Bizipozaren jairako

Irailaren 17an Bizipozaren jaia izango da Derion. Bizipoza elkarte anitza da, bere baitan izaera bereziko 33 elkarte hartzen dituen. Beraz, Bizipozaren jaiaren egitaraua ere anitza izango da. Ekitaldiak dohainik izango dira; Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna izan ezik. Horrek bost euro balioko du eta sarrerak abuztuaren bigarren hamabostaldian ipiniko dira salgai, Internet bidez eta bost euroan.

Ekitaldi nagusiak Arantzazu kalean eta kiroldegi barruan egingo dira, eta haiek beheko koadroan dituzue zehaztuta. Bestalde, frontoi txikian, Bizipoza elkarteetakoak egongo dira egun osoan, hurbiltzen denari beraien lanaren berri emateko, eta frontoi handian bazkaria egingo da ordu bietatik lauretara. Txartelak egun berean erosi beharko dira, bost euroan.

Bestalde, futbol eta tenis zelaian gunean Irrien Lagunak Klubeko puzgarriak ipiniko dira, eta rockodromoa eta ohe elastikoak ere egongo dira, BBK Fundazioaren eskutik; baita Derioko AMPAK antolatutako tailerrak ere. Azkenik, Arantza-



zu kaleko behealdeko gunean, besteak beste, giza mahai-futbola eta futbol-txapak egongo dira, Athletic Club Fundazioak antolatuta; eta tailerrak, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioaren eskutik. Elkartasun tonbolak egingo dira, eskumuturrekoak banatuko dira eta Bizipoza elkartearen materiala ipiniko da salgai.

Antolatzaileek deia egin diete herritarrei, jaiaren parte hartzeko. Esther Apraiz Derioko alkateak eta Luisma Landaluze Gure Señeak elkarteak kideak azpimarratu dute Derio herri solidarioa dela, beti besteei laguntzeko prest egon dena, eta Bizipozaren jaia beste hitzordu bat dela, derioztarren elkartasuna erakusteko. Izan ere, elkartasuna eta elkarlana ezinbestekoak dira jaia aurrera ateratzeko. Horren haritik, antolatze-lanetan lagundu nahi duena antolatzaileekin ipini daiteke harremanetan, helbide elektronikoa honen bidez: itsaso@bizipoza.eus.

Bizipozaren barruan dauden elkarteek oso esparru desberdinak jorratzen dituzte, baina denek balio beretsuak dituzte. Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen errealitate desberdina duten familiak ezagutu dituzte beraien ibilbidean, eta horrek Irrien lagunak klubetik Bizipoza elkartearen sortzera bultzatu zituen. Elkarteak solidaritatea du oinarri; eta guztiontzako mundu hobe bat sortzea, helburu: alaitasunez, elkartasunez, maitasunez, aniztasunez... betetako mundu bat.

Ekitaldiak

Arantzazu kaleko oholtzako gunea

- 10:00 Elkarleen topaketa
- 11:00 Piko-Piko jolasa, Bertoko eta Irrien lagunak klubeko kideekin
- 13:00 Agurra. Taberna Ibiltaria herrian zehar ibiliko da; eta Irrien lagunak klubekoak, frontoi txikian
- 13:20 Kantarelux abesbatza eta Lainomendi dantza taldea
- 14:00 Piperdun flamenko taldea
- 14:15-15:00 Taberna Ibiltaria

-16:00 Kaxoi eta txalo tailerrak, Kale Dor Kayiko elkartearen eskutik

-16:30 Ane eta piratak parrandan. Bizipozako elkarteekin batera dantzaldia

-17:30 Txokolatada

-18:00 Jai amaiera

Kiroldegi barruko gunea

-11:30 Pirritx, Porrotx eta Marimotots pailazoen *Tipi tapa Korrika* ikuskizuna

-15:00 Kukuke antzerki eskolako dantzaldia

-15:20 Ipuin kontalaria: *Urrezko sagra*, Josu Camararen eskutik

MARMOLGINTZA GOYO
SURALDE-GAINEKOAK OIBRAK HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind, 18-B nabea
48160 Derio, Bizkaia
T: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

KAFETEGIA IAZI JATETKEA

Jata kalea, 2 - DERIO
Tel.: 944 54 29 56

HABAGITEGIA URDAITEGIA IMAZ

MUNGIALDE ETORBIDEA,2
TEL.FNOA: 94 454 10 75

DERIO

Eskerrik asko etortzeagatik



Bimba | Asteme soziala

Loiuko Olarra lantegiaren aurrean autobus geltoki bat dago, eta bidaiari gehienek, errepideari begira egon beharrean, atzean dagoen Josebe Mentxakaren landan bizi den Bimbari begira ematen dute denbora, autobusaren zain. "Bimba oso maitagarria da", adierazi du Josebek, animalia lastantzen duen bitartean. "Baina landako belarra jateko ekarri nuen bertora, eta jendeak, asmo onenarekin bada ere, janaria ematen badio, belarra jateari utziko dio nire astañak!".

Testua eta argazkia: Jon Goikouria Larrabeiti
www.jongoikouria.com

Josebek bere landan
badeko bedarra
ta berau jatea da
Binbaren beharra.
Begirada trukea
eta irrifarra.
Hemen biek daukie
alkarren beharra

Itallen Bertso Eskola

ZAMUDIO-DERIOKO LURLANGILEEN ETXEA
Santi Mami auzoa, 1
Tel.: 94 454 10 06
Faxa: 94 454 12 15
48170 Zamudio (Bizkaia)

SANTI MAMI
ALBAILARITZA
Nerea Pedrosa Cols. 517
COOP. GANADERA ZAMUDIO DERIO
Tel.: 94 454 13 77 - 689 04 31 15
Faxa: 94 454 12 15

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno.: 94 453 33 28 - Fax 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)

Garmendia
ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

RPS: 184/10

OPTIKA IKUSLAN

Arbolantxa kalea, 5, behean
ZAMUDIO
Tel.: 94 452 28 18

"Badut arantza bat telebistarekin"

t: Itxaso Marina / a: IZAE eta EITB

JOSEINA ETXEBERRIA | esataria

Gaztea irratian zabiltza, hura sortu zenetik, 27 urte. Esperimentu moduan jaio eta Euskadin gehien entzuten den hirugarren irratia da. Zein da sekretua?

Bai, horrela da; eta guk arratsaldean egiten dugun Box saioa, entzunena gainera. Beno, momentu on bat bizi dugu. Gaztea irratia txikia da, baina ilusio handia biltzen da bere baitan. Gure arteko giroa ere ona da eta horrek laguntzen du. Eta guri entzutea gustatuko litzaiguen zer-bait egiten saiatzen gara. Ez dut uste hortik aurrera aparteko misteriorik dagoenik.

Eta Joseinaren sekretua?

Kar, kar. Taurus zeinukoa naiz, eta burugogor samarra, seguru. Gainera, egiten dudana bizi egiten dut. Ez dut esan nahi era bizian egiten dudarik, baizik eta sinesten dudana zerbait egiten dudala. Eta musika, eta komunikazioa... asko gustatzen zaizkit.

Zein izan da Gaztea irratia urte hauetan eduki duen bilakaera?

"Guri entzutea gustatuko litzaiguen zerbait egiten saiatzen gara Gaztea irratian"

"Irrati musikal bat izaten hasi ginen, baina berehala konturatu ginen irratia oso bat eskaini behar genuela"

"Batez ere musika barrokoa entzuten dut. Antzinako musika asko gustatzen zait"

Gaztea irratiko esataria Xtreme lehiaketa aurkeztzen ibili zen Lagatzu Egunean. Muturreko esperientzia bizi izan zuten parte-hartzaileek. Eta aurkezleak? "Bai, nahiko muturrekoa. Eguraldiak ez zigun asko lagundu, baina bai animoak. Larunbat goiz-pasa benetan polita egin genuen. Ze rolo ona!". Berarena bezain rolo ona.



Irrati musikal bat izaten hasi ginen, eta oraindik ere musikak lehentasuna izaten jarraitzen badu ere, berehala konturatu ginen irratia oso bat eskaini behar genuela. Hau da, musikaz gainera beste eduki batzuk behar genituela: informazioa, entretenimendua, umorea... Momentu horretan etorri zen gure bilakae-rako saltorik garrantzitsuenak.

Besteok musika entzuten dugu deskonektatzeko. Zer egiten duzue?

Nik ere bai. Eta konektatzeko. Eta lanerako. Eta lo egiteko. Eta esnatzeko. Eta...

Zein motatako musika?

Irratian jartzen dudana musika gu-txi. Batez ere musika barrokoa entzuten dut; 30 urte daramatzat musika hori entzuten. Antzinako musika asko gustatzen zait. Jazza ere bai. Eta gaur egungo taldeen artean, The War on Drugs, eta Vampire Weekend ere bai.

Esan ahal bada, kuriositatez, badago irratitik kanpo debekatuta duzun abestirik?

Ez. Irratian milioi bat aldiz ipini ditudan abestiak ere ez ditut debekatuta. Musikak ez nau aspertzen; kanta batzuk beste batzuk baino nahiago baditut ere.

Eta musikari buruz. Zelan dago euskal musikaren panorama?

Herri txiki batean bizi gara eta horrek dena mugatzen du. Euskal Herrian gutxi gaude; euskaldunak, gutxiago; gazteak, gutxiago; musika zaleak, gutxiago... eta horrela esparrua txikitzen eta txikitzen gabiltza, eta musikari batek entzuleak eta jarraitzaileak behar ditu. Nondik atera arrainak, hain arrantza gutxi dagoen itsaso batean? Txikitetasun horrek ia ito

"Bi lagunaren arteko komunikazioa ez den horretan ezer gutxi egiten du irratia adinako konpainia"

"Irratikook dena ahotsera bidaltzeko ohitura dugu; telebistan horrek gure komunikazio-ahaleginaren zati bat besterik ez darama"



egiten gaitu, baina gure aukera txiki horien artean, gauza dezente egin eta egiten dugu.

Irrati gizona zara. Zein da irratia xarma?

Irratia konpainia da. Musika ezinbesteko laguna da niretzat, eta auto bidaia luzeetan, esaterako, musikaz gain irratia ere badut ezinbestekotzat. Norbait behar dut alboan, eta bi lagunaren arteko komunikazioa ez den horretan ezer gutxi egiten du irratia adinako konpainia. Irrati bat alboan duenak, bertan norbait zuzenean edo lanean badabil behintzat, ez du bakardaderik sentituko.

Musikalek gainera, zein motatako saioak entzuten dituzu?

Denetarik entzuten dut: batzuk, arrazoi batzuegatik; eta beste batzuk, beste arrazoi batzuegatik. Nazioartekoak ere bai: jende oso ona, eta asko, dago hortik. Oraindik ere badugu zer ikasi.

Telebistara egingo dugu salto. Ez da lehenengo aldia bertan ikusi zaituguna, baina bada lehenengo aldia

musika ardatza ez den saio batean ikusi zaituguna. Eta gaztelaniaz, gainera. Zelan izan da esperientzia *El Conquis* saioan?

Lantalde eta lan-giro aldetik, oso ona. Baina nik eman dudana ez dut uste –beno, seguru nago– maila berean egon denik. Badut arantza bat saio horrekin eta telebistarekin. Gustatzen zait, baina ihes egiten dit. Gainera, irratikook badugu gabezia bat telebistara joaten garenean: dena ahotsera bidaltzeko ohitura dugu, eta telebistan horrek gure komunikazio-ahaleginaren zati bat besterik ez darama... Uretan igerian ez dakiena bezala sentitzen gara. Ez gara itotzen, baina...

Hala ere, zure burua ikusten duzu inoiz telebistan? Musikari lotuta ez dagoen saio batean?

Aldaketa garai batean murgilduta nabil, eta egia esatea nahi baduzue, momentu honetan ez dakit nora eramango nauen aldaketa horrek. Baina laster jakingo da. Eta nire osasunak eskertuko du!

Zertzeladak

Ataun, 1968. Joseina Euskadi Gaztean –Gaztea, gaur egun– hasi zen artean kazetaritza ikasten zebilela. Harrezkero 27 urte pasatu dira eta denbora-tarte honetan bere ahotza lagun izan da, eta bada, gazte eta ez hain gazte askorentzat. Besteak beste *Di-da*, *Are gazteago* eta *Sofa horia* saioak aurkeztu ditu, eta gaur egun *Gaztea box* saioan dabil Ainhua Etxebarriarekin eta Ibon Fernandezekin. 2001etik 2004ra bitartean Euskal Herriko ia txoko guztietatik ibili zen *Diskofesta* egitasmoarekin, eta telebistan *E-klipse* saioa aurkeztu zuen. Aurten telebistan ikusi dugu berriro, *El Conquis del Caribe* saioan hain zuzen ere. Joseinak musika ipini zien abenturaren momenturik onei.

OSTEOPATIA-ZENTROA
ORDEZKO TERAPIAK
Lasai
Luis M^a Asensio
Terapeuta naturopata
Larrabari, 1 lonja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelakoa: 655 74 24 69
osteopatialasai@gmail.com

LEIRE BEGOÑA
ULE-APAINDEGIA
MUNGIALDE ETORBIDEA, 20
48160 DERIO
94 454 26 32
Jarrai jarraun Facebooken

LOREGARBI **GARBIKETA ZERBITZUAK**
Gutxi-ikusiak, orokorrean
Auzokomunitateak
Mantentze gabi-ikusiak
Bulegoak eta lokalak
Olinpiko enpresen garbiketa
Zaberi bilaketa
Besalde Plaza, 1 - B^a Aldekone
48160 DERIO (Bizkaia)
loreagarbi@euskalnet.net
Tel: 94 406 49 92
656 712 443
Fax: 94 406 49 93

Egun Xtreme bat



a: Zamudioko argazkilaritza taldea IZAE

Ekainaren 24an, Lagatzu Eguna ospatu zen Zamudion bederatzigarren aldiz, Txorierin egiten den euskararen jairik garrantzitsuenetarikoa da. Lagatzu Zamudioko euskara elkarteak jai handia antolatzen du euskaraz bizi izatea eta ondo pasatzea aldarrikatzeko. Eta aurten ondo pasatu dute, bai horixe. "Aurten guztiz ez-

berdina izan da, baina parte-hartzaileen aurpegiak ikusi baino ez zen egin behar jakiteko emaitza ona izan zela. Eta batez ere aipatzekoa da jende gazte pilo batek hartu zuela parte. Hori bereziki pozgarria da, Lagatzuko lanaren jarraitasuna bermatzen duelako", esan digute antolatzaileek. Ospakizunak barikuan hasi ziren, Yogurinha Borova *show woman* euskaldunaren eskutik.

Hala ere, jaiaren muina zapatuan egin zen. Goizean, Joseina Etxeberria kazetariak Lagatzu Xtreme lehiaketa aurkeztu zuen. Guztira, 12 lagunek osatutako zortzi talde sartu ziren lehian. Horiekin batera, epaileak, laguntzaileak eta lagunak ere jolastu ziren. "Euria egin bazuen ere, 100 lagun baino gehiago aritu ziren. Oso giro ona egon zen". Parte-hartzaileek saio fisikoei, musikalei eta kulturei egin zieten aurre. Horren ostean, euskaltzaileek *Mannequin Challenge* bat egin zuten.

Poteo musikatuaren ostean, bazkalatzeko ordua heldu zen. Kultur Etxeko patioan 540 lagun baino gehiago batu ziren. Bazkalondokoa girotzeko, Taberna Ibiltaria taldeak kontzertua eskaini zuen eta, betiko moduan, euskaltzaileek agertokira igotzeko aukera izan zuten. Kontzertuan zehar Lagatzuk omenaldia egin zien lau laguni: Ainhua Bilbao (Hiru bat dantza taldeko kidea); Iratxe Gezuraga (Kamara Koraleko kidea); Josu Aretxabaleta (Bertoko taldekoa); eta Jaime Gardoki (Kantarelux taldekidea). "Azken urteotan izugarrizko inplikazioa adierazi dute Lagatzu Eguna antolatzeke orduan eta eskerrak eman nahi izan dizkiegu bere lanarengatik". Txapel bana jaso zuten.

Giroa oso polita izan zen egun osoan zehar, baita gauean ere. Taberna Ibiltaria





taldearekin betiko kantak abestu eta gero, Trikiño taldeak "benetako" erromeria eskaini zuen. "Zenbait herritan egiten dira egin erromeriak, baina haietako askotan jendeak ez du dantzatzeko. Gurean, bai, ordea". Batzuentzat, hantxe bukatu zen Lagatzu Eguna, baina beste batzuek gauean zehar luzatu zuten Zamudioko euskararen eguna.

Argazki guztiak: www.aikor.eus



Urtzagale Kalea, 1 | Tel.: 94 403 40 60 | info@txorierri.net
48160 - DERIO | Fax: 94 403 40 61 | www.txorierri.net

Eusko Jaurlaritzak diruz-lagundutako ikastetxea



ZIENTZIAK BATXILERGOA LANBIDE HEZIKETAKO ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- Mekanizazio teknikaria
Erdi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Fabrikazio Mekanikako Diseinuko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Produktzioaren Programazio goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

SEGURTASUNA ETA INGURUMENA

- Ingurumen Hezikuntza eta Kontrolako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

ELEKTRIZITATEA ETA ELEKTRONIKA

- Automatizazio eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

MERKATARITZA ETA MARKETINA

- Salmenten eta Merkataritza Espazioen Kudeaketako goi mailako teknikaria
Goi mailako zikloa (2.000 ordu)

Txorierriko lehenengo “eko-festa”

Zamudioko Udalak, Txorierriko Mankomunitatearen lankidetzarekin batera, Zamudioko Lagatzu Alkartearen herri-bazkaria birziklatzearen aldeko jai bihurtu du. Bazkari tradizional horretan erabilitako elementu gehien-gehienak % 100 konpostagarriak izan ziren eta edukiontzi espezifikoetan jaso ziren.

Udalaren ekimenez, eta udalerrian “zero zabor” sortzeko helbururantz hurbiltzeko asmoz, aurten Lagatzu Alkartearen herri-bazkarian erabilitako elementuak konposta egiteko baliatu dira, eta, horrenbestez, ekitaldi hori udalerriko lehenengo “eko-festa” bihurtu da. Horri esker, Udalak kalkulatu du 500 jankidek baino gehiagok sortutako 300 kilogramo hondakin inguru aprobetxatu ahal izan zirela.

Hori lortzeko, festa prestatzeko erabilitako elementu ia guztiak, “baita txosne-tako basoak ere”, konpostagarriak ziren, eta hori ziurtatzen duten estandarra betetzen zuten (DIN EN 13.432). Horren adibide izan ziren, halaber, bazkarian erabilitako plater, edalontzi eta mahai-tresnak, materia organiko konpostagarriarekin eta petroliorik gabe eginak.

Festa amaitu ostean, erabilitako elementu guztiak eta elikagai-hondar ez aprobetxagarriak gaika bildu ziren eta zegokien edukiontzietara bota ziren; horrenbestez, ez zen orain arte egiten zena egin, errefusaren edukiontzira bota, alegia (hots, birziklatzen ez diren hondakinen edukiontzira). Hondakin horiek guz-



tiak konpostagailu komunitario berri batera eraman dira, hilerriaren ondora; etorkizunean, ireki egingo da, berau erabili nahi duten herritarrentzat.

Ekitaldi honetarako, edukiontzi berri bat jarri zen errefusa biltzeko. Elektronikoki ireki zitekeen soilik, eta, hortaz, antolakuntzako kideek soilik ireki zezaketen. “Bazkari honen xedea izan zen eko-festa bihurtzea, errefusaren edukiontzira botatzeko hondakinak ahal bezain gutxi izatea, eta idealki bat ere bota behar ez izatea”, nabarmendu zuen Zamudioko alkate eta Txorierriko Mankomunitateko buru Igotz Lópezek. Gainera, hau adierazi zuen: “ezin hobeia izango litzateke etorkizunean erabili eta botatzeko tresnen ordez tresna berrerabilgarriak erabiltzea”.

Ekimena Italiako Séveso hirian oinarrituta dago (harekin batera parte hartzen ari gara Waste4Think Europako proiektuan), baina hemengo errealitatera eta premietara egokitu da. Europako proiektu horren xedea da irtenbide berritzaileak bilatzea, herritarren parte-hartzean eta teknologia berrietan oinarrituta, hiri-hondakinak sortzea murrizteko eta sortutako hondakinen berrerabilera areagotzeko. Hiri horretan parte hartu zuen, hain justu ere, Zamudioko alkate Igotz Lópezek ekainaren hasieran egin zen bilera batean. Saioan proiektuan parte hartzen ari diren lau hirietako 50 ordezkari elkartu ziren (Cascais, Portugal; Halandri, Grezia; Séveso, eta Zamudio), proiektuaren lehen arrakastak eta emaitzak partekatzeko.

Txorierri, Europarako eredu

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak Ekialdeko herrialdeetako Europako Kontseiluaren ordezkari bat baten bisita jaso zuen ekainaren 27an. Taldea tokian tokiko hogeiren bat ordezkari osatu zuten eta kudeaketa partekatutako formulei buruzko interesa agertu zuten. Hori horrela, Euskadin oso zabalduta dagoen udalerri txikiarako irtenbide mota bat ezagutzeko aukera izan zuten: mankomunitateak. Bisitan egiaztatu zuten eredu horrek baliabide eta egitura eraginkorrak izateko aukera ematen duela eta aurrez

aurre ezagutu zuten, era berean, EGAZ Txorierri Enplegu eta Sustapen Ekonomikoko Zerbitzua.

Georgia, Armenia, Bielorrusia eta Moldaviako udalerrietako tokiko ordezkariak Txorierriko Mankomunitateko buru eta Zamudioko alkate Igotz Lopezen eskutik ezagutu zuten zehazki Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika eta Zamudiok baliatzen duten eredua. Hitzordua Euskadin eginiko ikerketarako bisita tekniko baten harira egin zen. Europako Kontseiluak antolatutako bisita, Eudelen lankidetzare-



kin, eta helburua zen udalerrien artean elkarrekin zerbitzuak eskaintzearen esperientzia arrakastatsuak eta jardunbide egokiak ezagutaraztea.



Estimulazio kognitiboa eta komunikazio egokia, Zainduz programaren gakoak irailean

Memoria lantzeko teknikak, etxeko egokitzapen errazak, narriadura kognitiboa duten pertsonak zaintzeko gakoak, estresari aurre egiteko erlaxazio-teknikak... Maiatzean eta ekainean, Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak lehenengo hitzaldi, tailer eta ikastaroak antolatu ditu, Bizkaiko Foru Aldundiaren Zainduz programaren barruan, mendekotasun-egoerak prebenitzeko eta mendekotasun-egoeran dauden adinekoen zaintzaileei informazioa emateko eta laguntzeko. Horiek horrela, jardueri irailean ekingo zaie berriro, arlo hauetako proposamenekin: estimulazio kognitiboa, arreta eta komunikazio egokia mendekotasun-egoeran dauden pertsonekin eta zaintzaileentzako laguntza psikologikoa.

Zainduz programaren ekintza guztiak lau azpiprogramaren inguruan daude egituratuta: mendekotasun-egoerak prebenitzea, informazioa eta sentsibilizazioa, zaintzaileen prestakuntza eta informazioa, eta zaintzari aurre egiteko laguntza emozionala. Oinarri horien gainean hasi ziren apirilean lanean, programa eta lehenengo jardueren egutegia ezagutarazi zenean, eta ildo horretan lanean jarraituko da irailetik aurrera ere.

Horiek horrela, uda ostean, jarduera berriak jarriko dira abian, besteak beste: narriadura kognitibo arina duten hirugarren adineko pertsonentzako estimulazio kognitiboko tailer bat, mendekotasun-egoeran dauden pertsonen zaintzaileentzako taldeko esku-hartze psikologikoko tailer bat, eta mendekotasun-egoeran dauden pertsonekin arreta eta komunikazio egokia izateko hitzaldi bat. Bestalde, Lezaman eskainiko da "Cómo trabajar nuestra memoria" (Nola landu gure memoria) hitzaldia. Hain zuzen ere, maiatze-

Txorierriko Zerbitzuen Mankomunitateak ikastaro eta tailer berriak egingo ditu uda ostean, Bizkaiko Foru Aldundiaren programaren barruan, mendekotasun-egoerak prebenitzeko eta zaintzaileei informazioa emateko eta laguntzeko.

an Derioko Erretiratuen Elkartean antolatu zen, eta udalerriko eta Zamudioko parte-hartzaileak erakarri zituen.

Maiatzean eta ekainean antolatutako jardueren arrakasta ikusita, ildo berean lan egiteko asmoa dugu. Hartara, ekainean egin zen "Técnicas de relajación para afrontar el estrés" (Estresari aurre egiteko erlaxazio-teknikak) ikastaroko parte-hartzaileek datozen hiletan egingo diren tailerrei eta hitzaldiei buruzko interesa agertu zuten. Era berean, gainerako jardueren kalitateari buruzko galdetegiak gogobetetze-maila handia irudikatzen dute landutako edukiekin eta irakasleekin. Hain zuzen ere, hobetzeko iradokizunen artean programak gehiago irauteko eskaera nabarmentzen da memoria-tailerrari dagokionez (saio horietan, maiatzaren 22tik ekainaren 15era, Zamudio, Derio, Lezama eta Larrabetzuko 65-83 urte arteko 19 pertsonak parte hartu zuten).

Guztira, 54 pertsonak hartu dute parte maiatzean eta ekainean egindako hitzaldi, ikastaro eta tailerretan. Parte-hartzaile gehien izan zituen jarduera memoria-tailerra izan zen, eta, ondoren, "Cómo trabajar nuestra memoria" (Nola landu gure memoria) hitzaldia. Azken horretan 13 pertsonak parte hartu zuten, eta 1,5 ordu iraun zuen. "Técnicas de relajación para afrontar el estrés" (Estresari aurre egiteko erlaxazio-teknikak) ikastaroak 1,5 orduko hiru saio izan zituen, eta 50-75 urteko bederatzi pertsonak parte hartu zuten. "Adaptaciones sencillas en el hogar" (Etxeko egokitzapen errazak) hitzaldia ere 1,5 ordukoa izan zen, eta 65-75 urte arteko zortzi pertsona bildu zituen. "Cuidando a personas con deterioro cognitivo" (Narriadura kognitiboa duten pertsonak zaintzea) hitzaldiak bi ordu iraun zituen, eta 47-57 urte arteko bost pertsona elkartu zituen.

*Programak
mendekotasun-
egoerak prebenitzea
eta zaintzaileei
laguntzea du helburu*





Galder eta Eneko, garagardoa prestatzen.

Garagardoagaz zoratuta

t: Gaizka Eguzkitza / a: Jon Goikouria Larrabeiti

ETXEKO GARGARDAOGILEAK

Alex Salvador sondikoztarrak 36 urte dauz. Kimikaria da eta laborategi batean egin dau behar. Eta denpora librea dauanean, garagardoa egitea gustetan jako. "Orain dala lau urte, nire andreak garagardoa egiteko kita oparitu eustan eta, handik aurrera, nire zaletasuna biztu zan", esan deusku. Alexek Dark Chemistry (kimika iluna) garagardoa egiten dau. "Hitz joko bat da, kimikaria nazalako eta garagardo baltza gustetan jatalako. Baina garagardo bakotxak badau bere momentua".

Beraz, gorputz handiko garagardoak gustetan jakoz. Eta holangoa be bada bere produktua: ingeles estiloko baltza, *brown ale* modukoa. Normalean, errezeta bi egiten dauz, bata, garizkoa, eta bestea, garagarrezkoa, eta hilean 20 litro ekoizten dauz. "Prozesua ez da oso gatxa. Nik nahiko errezeta erraza erabilten dot, eta garagardoari hiru malta mota eta lupulu mota bi baino ez deusadaz botaten.

Tradizinoz, Txorierri txakolinaren eremua izan da. Halan-da be, azken bolada honetan gero eta jente gehiago hasi da etxean garagardoa egiten. Guztiak dabilz garagardoagaz zoratuta. Hurrengo lerrootan, Eneko Alonso, Alex Salvador, Jon Loroño eta Kepa Gallastegi ezagutuko doguz. Azken horrek, gainera, zaletasuna negozio bihurtu dau eta Txorierri garagardoa merkaturatzen dau.

Lehengaiak eta tresneria-eta Interneten bidez erosten dot, baita Derioko burdindegian be, eurak ardaogintzan iaioak diralako eta laguntza handia emoten deustelako".

Alexek bere kabuz ikasi dau. "Ikas-taroa egin neban Sopelan, bertako garagardogile bategaz. Ganera, Interneten ibiltzen naz eta liburuak irakurten dodaz. Beste alde batetik, euskal garagardogileen alkarte baten sartu naz eta bertan laguntzea emoten deusagu alkarri. Prak-

tiketan dabilan kimikaritzat hartzen dot nire burua (kar, kar)". Sondikoztarrak oso mainatsua da konponketarako eta horregaitik, Alexek berak egin dau tresneria. "Handik eta hemendik lortu dot tresneria zaharra eta neurea be landu dot apurka-apurka. Lagunek txantxak egiten deustezan *Mc Gyver* eta *Breaking Bad* teleaioakaz (kar, kar)".

"Gureak artisau-garagardoak dira, hau da, guk produktua mimetan dogu eta etekinak baztertzen doguz. Ahalik eta



Alex Salvador.

garagardorik onena egiten ahalegintzen gara. Industria mailan garagardoa egiten dauan enpresa batek, oster, beste gauza batzuk hartzen dauz kontuan, eta normalean, kalidadearen kalterako: hazi merkeagoak erabiltzen dabez, prozesuak laburtzen dabez, arroza eta beste gauza batzuk sartzen deusiez garagardoari... Horregaitik, gurea hobea da”.

Galand

Ander Alonso Rubio 34 urteko lezamarra be artisaua da. Berak Bilboko portuan egiten dau lan eta beharreko txandek itxiten deusienean, Galand garagardoa egiten dau Aldekoneko lonja baten, Galder Gómez lagunagaz batera. “Garagardoa beti gustuko izan dot eta lagun batek garagardoa egiteko proposamena egin eustanean ez neban zalantzarik euki. Izan be, ezin naz geldirik egon (kar, kar). Hasieran, 15 litro ekoizten genduzan, baina apurka-apurka, hori hazi egin zan”, aitatu dau. Gaur egun 150 litro ekoizten dabez hilean.

Ander orain dala 3-4 urte hasi zan garagardoa egiten, eta hasiera baten, Gor-

Libre dagoen txoriak fazil egiten du barre

txori tokia



TXORIERRIKO UDAL
EUSKALTEGIA



2017-18 IKASTURTEA

–A1-A2-B1-B2-C1 maila guztiak.

–Ikasleen beharizanetara egokitutako ikastaroak: (Osakidetza, IVAP, gurasoak, merkatariak, mintzamena...)

–Eskolaz kanpoko jarduerak ahozkoari ekiteko.

ERDU GEUGAZ,
EGIZU EUSKERAZ!

Matrikula
zabalik

NORENTZAT:

16 urtetik gorakoentzat.

ERRITMOAK:

Astean 10/7, 5/6 eta 5 ordukoak.
Urritik ekainera.

Autoikaskuntza ikastaroak-BOGA.

MATRIKULA ZABALIK:

Irailaren 4tik 26ra.

DIRULAGUNTZAK ETA HOBARIAK:

Langabetuentzat berenberegiruz lagundutako ikastaroak.

BULEGO ORDUAK:

8:30-14:00

16:00-18:30

Alex: "Niri baltza gustetan jat, baina garagardo bakotxak badau bere momentua"

Ander: "Garagarra zuk zeuk txikitzeak kalidade puntu bat emoten deutso produktuari"

Jon: "Esperimentu batzuk egin doguz. Azken bitxikeria mandarinagaz egindako blonde ale bat izan da"

lizeko ekoizle batek, Tito Blasek, laguntza handia emon eutsen. "Helburua garagardo on bat egitea da. Horretarako, ikasi behar da eta, horretarako, garagardo asko eta asko egin behar da. Igazko garagardoa orain dastatzen badogu, konturatzen zara hori ez dala pentsau zenduan beste-koa. Esperientzia funtsezkoa da. Eta horretan gabiltz".

Anderrek eta Galderrek ordu pilo bat emoten dabe garagardoa egiten. Euren berbetan, prozesua ez da gatxa, baina denpora asko eskatzen dau. "Hasten garagetik, botilatik edaten dogun arte, hilabete eta erdia pasetan da: laburbilduz, ura eta garagarra nahasten doguz; hortik urten dan mostoari lupuluak botaten deutsaguz txandaka; mostoa hartzitzailean sartu eta legamiagaz nahasten dogu; garagardoaren hondarrak garbitzen doguz..."

Anderrek berak txikitzen dau garagarra, bere ustez, "horrek kalidade puntu bat emoten deusolako produktuari". Guztira, zazpi garagardao mota egiten dabe: belgiar estiloko bi –*golden strong*, alkohol asko dauana, eta *brown ale* edo nahiko

txigortua–; ingeles estiloko hiru –hori arrunta edo *pale ale*; apur bat txigortua edo *red ale*; eta *brown ale*–; eta IPA (*India Pale Ale*) motako bi –bata baltza eta beste apur bat txigortua–. "IPAk dira niri gehien gustaten jatazanak, batez be baltza".

"Jenteak ez daki gehiegi garagardoei buruz: uste dabe txigortuak oso indartsuak dirala eta alkohol asko dabela; edo baltz guztiak kafearen saborea dabela. Eta ez da egia. Europa mailan, aukera askoz anitzagoa, eta bide batez, askoz hobea da, eta globalizazioaren ondorioz, jentea konturatu da garagardo hobea edan ahal daua. Geurea guztiz naturala da eta gainera askoz gozoago dago".

K-Hamalu

Atharratz García, Josu Bilbao, Asier Larrabe eta Jon Loroño Larrabetzuko lagunak dira. Orain dala urte bi, Hori Bai gazte-axeak antolatutako dastaketa baten hartu eben parte eta horren haritik, eurak be animau ziran garagardoa egitera. "Erletxeko industriagune baten hasi ginan, txoko txiki baten, eta horregaitik gure garagardoa K-Hamalu da: pabilioia bloke K-n eta 14. zenbakian zegoalako. Era berean, logotipoan gorpil bat agertzen da, industrialde horretan be ibili ginalako motor bat konpontzen", azaldu deusku Jon Loroñok, barrezka.

Denporaren poderioz, Erletxeko "lantegia" txiki lotu jaken eta, akabuan, lagun batek lonja bat itxi eutsen Andra Mari

kalean, Larrabetzuko eleizaren aurre-aurrian. "Hemen txokoa jarri dogu: bate-
tik, barra, mahaia eta lagunakaz-eta egi-
ten dogun garagardoaz gozetako lekua;
bestetik, beste gela batean, lantegia edo
lapikoak doguzan lekua". Guztira 120 litro
ekoizten dabe bertan, hilean.

Larrabetzuarrek ez dabe beti errezeta berbera egiten eta gauza barriak dasta-
tzea gustetan jake. "Esperimentu batzuk
egin doguz: ezti edo ogia egiteko lega-
mia erabili dogu, esate baterako". Azken
bitxikeria mandarinagaz egindako *blonde
ale* bat da. "Arraroena izan da. Gallartako
azoka baten Norvegiako batzuek frutaz
egindako garagardoa emon euskuen eta
oso gozoa iruditu jakun. Zortzi kilo man-
darina birrindu behar izan genduzan
eskuz (kar, kar)".

Jonek batez be honeek azpimarratu
dauz: "Batetik, *brett IPA* motako garaga-
rdoa, sabore handikoa eta legamia basatia
erabiltzen dauana. Hori Burgosen eginda-
ko etxeko garagardogileen mintegi bate-
ra eroan genduan eta oso erantzun ona
jaso genduan. Bestetik, *stout* bat. Hori
lrunen egindako azoka batera eroan gen-
duan eta finalista izan ginan bertan. Eta
azkenik, *marzen* motako *lager* bat be ur-
ten zan oso gozo". Arrakasta ikusita, "gara-
gardo batzuk edan eta gero", koadrillak
behin baino gehiagotan pentsau dau be-
re zaletasuna ogibide bihurtzea, eta K-Ha-
malau merkaturatzen hastea, baina hori,
momentuz, ametsa baino ez da. "Gauza
asko hobetu behar doguz (kar, kar)".

Josuk, Jonek, Atharratzek eta Asierrek,
K-Hamalu garagardoa egiten dabe.



Txorierrri garagardoa: etxetik merkatura

Kepa Gallastegi, Pedro Alzola eta Félix Losada lagun bilbotarrak dira. Orain dala 25 urte sagardoa egiten hasi ziran baserri baten eta, beranduago, garagardora pasau ziran. Dana hazi zan apurka-apurka eta orain dala hiruz-palau urte Sondikako Berreteaga industrialdera etorri ziran ekoizpen handiak egitera. Gaur egun, 1.000 litro ekoizten dabe hilero. "Profesional moduan hasi ginan, nolabait esanda. Prozesu naturala izan zan enpresa bihurtzea. Izan be, etxean 600 litro ekoizten genduazan garai baten. Beraz, aurrerapausua emon behar izan zan. Ganera, merkaduan ez zegoan guri gustetan jakun garagardorik", esan deusku Kepak.

Txorierrri markakoek lau garagardo mota egiten dabez: Blonde, lupulu amerikarragaz egindako *lager* bat, mingotsa, argia eta freskoa; Golden ale, arrunta, erraz hartzeko moduko horia; Ambar, alemaniar estiloko txigortua; eta Best bitter, ingeles estilokoa eta gehien saltzen dabena. "Guk hamabost egun itxiten dogu garagardoa gordeta, sabore handiagoa hartzeko. Azken baten, guri gustetan jakun garagardoa egiten dogu eta espero dogu jenteari be gustetea. Erraz edateko garagardoa da, merkaduan enpresa handiek egiten dabezan modukoak, baina kalidade altuagoagaz, arroza, patata edo beste



gauza arraro batzuk botaten ez deutsegulako. Etxean egiten genduan moduan egiten dogu".

Sondikan eta Derion

Txorierrri garagardoa 60 tabernatan eta hainbat dendatan dago eta hareetako batzuk, Sondikan eta Derion doguz. "Apurka hazten ahaleginduko gara. Bertakoari garrantzia emoten deusagu eta inguruan saldu gura dogu, batez be Bizkaian. Era berean, lehengaiak Euskal Herrian bertan erosten ahalegintzen gara: garagarra, esate baterako, Araban erosten dogu Intermaltan eta hitzarmena sinatu dogu eurekaz, eurek garagar mota gehiago ekoizteko". Garagardoa saltzeaz ga-

nera, Txorierrri markakoek dastatzeak antolatzen dabez eta zerbitzu batzuk emoten deutseez enpresei.

"Gatxa da merkaduan leku bat eukitea. Baina ez beste garagardo artisau batzuk dagozalako –gutziz osagarriak garelako–, baizik eta jenteak garagardoa edateko kultura eskasa daukalako. Ganera, garagardo enpresa handiek merkeegi saltzen dabez euren produktuak, eta horrek ez deusku lehian sartzeko aukerarik emoten. Taberna batzuetan euro batean saltzen dabe botila bakotxa, orain dala 20 urte saltzen eben prezio berberean. Zelan egin dabe? Produktua gero eta okerragoa dala-ko".

Tokian tokikoa

TXG TXORIERRI GARAGARDOAK
GARAGARDO NATURALA · CERVEZA ARTESANA · CRAFT BEER
Txorierrri Etorbidea, 46 · Pol Berreteaga, B1 48150 Sondika · www.txg.eus · info@txg.eus · 607422655

Bisita gidatuak eta dastaketak
607422655



Guztiek disfrutetako jai eredua

Txupinazoa Uritarra futbol taldeak botako dau, izan be 70 urte bete dira sortu zanetik eta, urteurrenaren haritik, eurek eukiko dabe larrabetzuarrei jaietan ondo pasetea opatzeko ardurea. Kalejiran futbol zelaitik urtengo dira herriko trikitilari eta txiatulariakaz, Akermari, Paskuala, Matxin, Jesusa eta Akerbaltzegaz. Aurretik, herritarrei begira pres-tautako jai-egitarau oparoa izango dabe.

a: Idoia Andres

Edozelan be, eta Intxurreta jai batzordetik adierazotakoaren arabera, ekintzak aurretik hasiko dira; abuztuaren 12an, hain zuzen be. Zapatu arratsaldean futbol 7 txapelketearen kanporaketak jokatu dira, eta Gaztelumendi abesbatzak musika saioa eskaniko dau eleizan, bere 25. urteurrenaren haritik. Domeka arratsaldean futbol 7 txapelketeagaz jarraituko dabe eta gauean herri afaria egingo dabe. Horren ostean, kantuz kantu eta kantutue lehiaketeta.

Txupinazoa 20:00etan botako daben arren, astelehen goizean pala jaialdia egongo da. Olarretako neskek gomazko pala partidua jokatu dabe eta horren ostean profesional mailako narruzko pala partidua izango da. Xaibor dj-ak eta Laket erromeria taldeak jaietako lehenengo gaua girotuko dabe. Martitzenerako, besteak beste, dantzen erakustaldia, tirolina eta karrozak antolatu dabez; eta zumba, sukalki txapelketea, sokamuturra eta kaleko antzerkia, eguaztenerako.

“Nobedade gitxi egon ziren igaz eta aurtan be segidu dogu linea horretatik”,

esan deuskue jai-batzordetik. “Igaz elektrotroxearegia antolatu genduan lehenengo aldiz abuztuaren 15erako, eta aurtan be egongo da. Era berean, dantzak izango dira, nobedade moduan. Tirolina eta rokodromo bat be ipiniko dira eta arkitiroa praktikatzeko aukerea egongo da. Bestetik, eguaztenean, abuztuaren 16an, kale antzerkia eukiko dogu Lekittoko deabruak taldearen eskutik. Piroteknia erabilten dabe eta oso ikusgarria izango da”.

Intxurreta jai batzordeak ez ditu jaiak kanpokoei begira antolatzen, larrabe-



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



944 557 027 · 944 557 009



udala@larrabetzu.eus

www.larrabetzu.eus



**LARRABETZU
ERASO SEXISTARIK
GABEKO JAIEN ALDE**



tzuarrei begira baizik. Horregaitik jai-egitaraua ondo funtzionaten daben ekintza jakin batzuen inguruan antolatzen dabe.

“Jai eredu honegaz mundu guztiak disfrutau egiten dau. Eta eskaeraren bat badabe, gugana datoz eta gu ahal dogun heinean saiatzen gara hori beteten”. Eskaera horretako bat umeentzako sokamuturra egitea izan da. “Eguazten arratsalderako antolatu dogu”.

Emeteriak

Eta sokamuturra da, hain zuzen be, jente gehien biltzen daben ekintzenetarikoa bat. “Hasieran, abuztuaren 15ean, goizeko 8etan, egiten zan, baina ekitaldia hurrengo egunera pasau genduan, arratsaldera, eta asmau egin genduan, plaza beteten dalako”. Karrozak be badira oso ekintza erakargarria eta parte-hartzailea. “Gero eta indar handiagoa dabe. Andra Mari kalea jentetz beteten da eta egundoko jaia egiten dogu. Ikusgarria da, benetan”. Herri afaria be aitatu behar, noski. “Plazea txiki gelditzen jaku. Jai-batzordeak mahaiak eta aulkiak ipinten dauz eta, gero, bakotzak etxetik dakar afaltzeko zerbait. Ostean, kanta lehieketea egiten da”.

Andramariez gainera, Intxurreta jai-batzordeak Emeteriak antolatzeko ardu-rea be badau. “Igaz Emeteriak bultzatzea hartu genduan erronkatzat eta uste dogu lortu egin genduala”. Aurten be ahalegin berezia egin dabe Goikoelexaldeko jaiak ahalik eta erakargarrienak izateko. “Egongo diran ekintzen artean Cum-



biam'bero txaranga aitau daikegu, idi-probak, erromeria, orienting proba bat... eta goitibeherak. Azken horreek andramarien jai-egitarauaren barruan antolatzen genduazan lehen, baina orain emeterien barruan sartu doguz. Egitarau nahiko polito lotu jakula esan geinke”. Egitarau oparoak eta erakargarriak antolatu jarraitu ahal izateko, jai-batzordean parte hartzeko gonbidapena luzatu deutsee larrabetzuarrei. “Jente barria behar dogu. Oso parte-hartze handia dago jaietan, baina, gero, jai-batzordean lauzpabost lagun baino ez gagoz eta laguntzea behar dogu”. Edozelan be, herritar guztiei zuzendutako jai-egitarau bikaina eukiko dabe beste behin, larrabetzuar guztiek ederto pasetako modukoa.

*Lagun gehiago
batzen daben ekintzen
artean karrozak eta
herri afaria dagoz*

*Igaz moduan,
ahalegin berezia
egin dabe emeteriak
bultzatzeko*

Jai-egitaraua

Abuztuak 12, zapatua

–17:30 Futbol 7 txapelketearen kanporaketak (Izena emotea abuztuaren 9a baino lehen, igerilekuetan edo intxurretajabatzordea@gmail.com helbide elektronikora mezu bat bidalita)
–20:00 Gaztelumendi abesbatzaren 25. urteurrena, Andra Mari eleizan

Abuztuak 13, domekea

–17:00 Futbol 7 txapelketearen finalurrekoak eta finala
–20:00 Herri afaria
–Futbol 7 txapelketearen sariak emotea
–22:30 Kantuz kantu eta kantuke lehiaketak (Banaka edo taldeka; zuzenean edo play backez. Bertsioak be bai, baina letra euskeraz. Luzapena: gehienez sei minutu)

Abuztuak 14, astelehena

–12:00 Pala jaialdia: gomazko pala jaialdia, Olarretako nesken eskutik (Iran-tzu-Naia / Maialen-Irati); eta profesionalen narruzko pala partidua (Fustolmanol / Gaubeka-Ibai Perez)
–18:00 Triatloi herrikoa. Banaka. (Izena emotea abuztuaren 9a baino lehen, igerilekuetan edo intxurretajabatzordea@gmail.com helbide elektronikora mezu bat bidalita)



batzordea@gmail.com helbide elektronikora mezu bat bidalita)

–20:00 Txupinazoa, Uritarra taldearen eskutik

–22:00 Xaibor

–00:00 Erromeria: Laket

Abuztuak 15, martitzena

–12:00 Kalejirea

–12:30 Euskal dantzen erakustaldia, Bizkargi dantza taldearen eskutik

–The Joselontxo's txaranga

–17:00 Tirolina eta puzgarriak, Anguleriko atzealdean

–19:30 Karrozak

–22:30 Eonian elektrotxarangea

Abuztuak 16, eguaztena.

Pijama gaua

–11:00 Kalejirea

Umeentzako puzgarriak, igerilekuan

–13:00 Zumba, plazan

–14:00 Umeentzako bazkaria

–14:30 Sukalki txapelketea

–19:30 Sokamuturra, 16 urtera artekoentzat; ostean, 16 urtetik gorakoentzat

–21:30 Lekitto-ko deabruak.

–23:00 Dantza lehiaketak

–00:00 Erromeria: Tximeleta

SAN BARTOLOME

Abuztuak 24, eguena.

–13:00 Urkaritxu txapelketea, 16 urtera artekoentzat

–14:30 Paella txapelketea

–17:00 Briska txapelketea

–18:00 Urkaritxu txapelketea, 16 urtetik gorakoentzat

EMETERIAK (GOIKOELEXALDE)

Abuztuak 30, eguaztena

–12:00 Kalejirea

–14:30 Marmitako txapelketea

–17:00 Mus txapelketea

–19:00 Goitibeherak

–21:30 Erromeria: Drindots

Abuztuak 31, eguena

–12:30 Kalejirea

–13:00 Herri kirolak

–17:00 Briska txapelketea

–19:00 Orienting

–20:30 Cumbiam'bero

Irailak 1, zapatua

–12:00 Jokoak, Kulkiren eskutik

–13:00 Bertso saioa: Anjel Mari Penagarikano eta Xabi Payá

–18:00 Idi probak

–22:00 Erromeria: Batek daki

Pablo Fusto
pilotaria



FOTERI TABERNA



Andra Mari Kalea, 22
Teléfono 455 80 98

48195 LARRABETZU-Bizkaia

Aliprox

Ondo pasa jaietan!

INES JANARI-DENDA
Iturrikoetxea, 3
48195 Larrabetzu
T: 94 455 84 33

LARRABETZU BIZIRIB

ETXEAN GURA DOGUZ JAIETAN

ARE TXA BALA



ANDRA MARI KALEA
TEL.: 94 455 84 64

ETORKI TABERNA

*Eguneroko menua
Asteburuetan menu bereziak*

Andra Mari Kalea, 1
Telf.: 94 455 81 95

48195 LARRABETZU (Bizkaia)

Jai euskaldunak opa dizkizuegu

arrekkikili

Larrabetzuko euskara elkarteak



LARRABETZUKO BATZOKIA

Eguneroko zein asteburuko menuak
Menu bereziak

Askatasunaren enprantza, 3
94 455 72 94



ANKAPALU




LARRABETZU
94 455 81 97
LOROÑO BEHEKOA (BIZKAIA)

IRUSTA TABERNA

**EGUNEROKO MENUAK
GAUEZ / MUSIKA ETA PARRANDA**

Gabonetan, etxean gura doguz

LARRABETZU
Tel.: 94 455 84 77

Moro's Pub



POLITENA TABERNA



Andra Mari
Larrabetzu, Bizkaia
tel.: 94 455 84 07

Zorritzorock eta yoga, jaietako nobedadeak

San Antolin egunean hasi eta Kurtzeko jaiekaz amaituko dira Lezamako jaiak. Bitartean, Andramariak eta herritar guztiei zuzendutako hainbat ekitaldi eta nobedade. Modu ezin hobea da, udari agur esateko.

a: Gaizka Peñafiel

“Lezamako mugetatik” mendi mar-
txak eta lasterketak hasiera emongo deu-
tse San Antolin eguneko ospakizunei irai-
laren 2an. Ondoren, San Antolin auzoan,
mezea, herri bazkaria eta briska txapelke-
tea egongo dira. Andramariak irailaren
7tik 10era bitartean izango dira eta,
Basobaltz jai-batzordetik adierazo deus-
kunez, Zorribike txirrindulari alkarteak
pregoia irakurtzeko ardurea eukiko dau
aurten. “Hamargarren urteurrena ospa-
tzen dabilz eta hasiera-hasieratik hartu
dabe parte jaietan”. Datorren urtean herri

*Zorribike txirrindulari
alkarteak pregoia ira-
kurriko dau, 10 urte
bete dauz-eta*

galdeketea egingo da Lezaman erabaki-
tzeko eskubidearen inguruan, eta Gure
Esku Dago plataformak galdeketea aur-
keztuko dau jaietako lehenengo egune-
an. Ondoren, mariachiak etorriko dira.

Lezamatarrek kalera urtetea hartu
eben helburutzat joan dan urteko jaietan,
eta, euren esanetan, helburua bete eben,
zer hobetu beti dagoan arren. “Herri par-
taidetzea da gure ezaugarri nagusia eta
horretan lan egiten jarraituko dogu urte-
rik urte, goiburu beragaz: jaiak herritik
eta herriarentzat”. Hala, adin-tarte guz-
tientzako moduko ekitaldi-sorta zabala
antolatu dabe, herritarrek ahalik eta on-
doen pasetako: kale antzerkia, elektrotxa-
rangea, kontzertuak, puzgarriak, dantzak,
bertsolariak, pelota partiduak... “Pro-
gramari jagokonez, aurreko urteetako
egiturari emon deusagu jarraipena, bai-
na aldaketa batzuk egongo dira. Esate
baterako, bertso poteoa barik bertso
emonaldia egingo da zapatu eguerdian,
eta txosnagunean txitxi-burruntzia eskai-
niko da”.

*Gastronomia
izango da mozzorro
jatsierearen
gaia aurten*

Bertsolariak nortzuk diran kontuan
hartuta –Lujanbio, Lekue, Enbeita eta Ar-
zallus–, uste dabe emonaldian jentea ba-
tuko dala. Barikuko mozzorro jaitsierea be-
jentetsua izango dala iragarri dabe. “Au-
rreko urte bietan egon dan giroa ikusita,
arrakastatsua izango dala uste dogu, eta
giro polita egongo dala. Aurtengo gaia
gastronomia da”. Jaitsieraz gainera, trikiti-
lariak, pelota partiduak eta mozzorro
lehiaketak egongo dira. Eta nobedade
bat: Zorritzorock gaua. Jai-batzordeak
beste ukitu bat emon gura izan deutso
bariku gauari eta eszenatokian aritzeko
talde honeek ekarriko dabez: Mamagi-
gi’s, Txapelpunk, Txarango eta Zartako-K.





Besteak beste, Txapelpunk, Txarango, Lágrimas De Sangre eta Skakeitan taldeek joko dabe

Baina hori ez da izango aurtengo jaietako nobedade bakarra, zapatu arratsalderako herritar guztiei zuzendutako yoga klasea antolatu da-eta eskolan. Bestalde, puzgarriak, kale antzerkia eta abesbatzen emonaldia be egongo dira. Kontzertuak Lágrimas de sangre, Skakeitan eta Garilak 26 musika taldeenak izango dira. Gainera, Andra Mari jaietako egun guztietan, eta afaltzeko, odolosteak egongo dira herriko taberna eta jatetxeetan.

Bolaleku eta Kurtze

Domekan, Bolalekuko jaiak ospatuko dabez Lezaman. Goizean, MTB lasterketea egingo da, eta paella txapelketea. Arratsalderako, mus txapelketea, puzgarriak, txokolatadea eta erromeria antolatu dabez. "Kurtzeko jaiak gorantz doazan auzoko jaiak dira, eta zapatuko sukalki txapelketan oso giro polita izaten da ur-



terik urte", aitatu deuskue jai-batzordetik. Aurreko urteetako eskemari jarraituta, jaiak irailaren 14tik 16ra bitartean ospatuko dabez Kurtze auzoan. Eguenean txupinazoa bota eta kalejirea eta erromeria egongo dira barikuan. Egun nagusia zapatua izango da. Goizean, tailerrak egingo dira umeentzat; eta jolasak arratsaldean. Sukalki eta tortilla txapelketak be egingo dira, eta bike-trial erakustaldia, arratsaldean. Tradizioa danez, zozketak

egingo dira, eta solomo eta hirugiharra-ogitartekoak egongo dira afaltzeko. Sorgina erre eta suziariak botako dira. Disko-festa batek girotuko dau gaua.

Basobaltz jai-batzordeko kideek lezamarrei eta txorierriar guztiei be egin deutsee Lezamara hurbildu eta jaietan parte hartzeko gonbidapena. Hau da, "udari behar dan moduko amaierrea emoteko". Hortxe dogu udako azken hitzordua, beraz.





Lezama ko Udala

erdu eta ondo pasa!

JAIAK 2017



Jai-egitaraua

Irailak 1, barikua

–18:00 Pelota partiduak: pelota eskolako umeak (binakako partiduak); Andra Mari Pelota Txapelketako finalerdia

Irailak 2, zapatua.

San Antolin

Herrian

–08:30 XI. Lezamako Mugetatik mendi martxea

–10:00 XI. Lezamako Mugetatik lasterketea eta martxa txikia

San Antolin auzoan

–12:30 Mezea. Jarraian, koputxoa trikitilariak girotua

–14:30 Azken ordua, bazkarirako txartelak erosteko

–15:00 Herri bazkaria, Lezama Sarezen alkartearen laguntzeagaz

–16:30 Briska txapelketea

Irailak 3, domekea

–14:30 Jubiladuen bazkaria

Irailak 7, eguna.

Odoloste Eguna

–19:00 Txupinazoa eta Kurutze dantzaren emonaldia

–19:45 2018ko herri galdeketea aurkeztea, Gure Esku Dago plataformaren eskutik

–20:00 Mariachiak

–Jatetxe eta tabernetan odolosteak afaltzeko

Irailak 8, barikua.

Andra Mari eguna

–12:30 Mezea

–13:00 Trikitilariak, tabernetatik

–18:00 Pelota partiduak: pelota eskolako umeak (buruz buru eta 4 t'erdia); emakumezkoen partiduak; eta Andra Mari Pelota Txapelketearen finala

–19:00 Koadrilen jaitziare, Mikel Zarate enparantzatik; gaia: gastronomia

–19:30 Pregoia, Zorribike alkartearen eskutik

–19:45 Poteoa, herriko tabernetatik, Sakatu elektrotxaranga girotua

–21:30 Txosnak zabaltzea

–22:00 Umeen moztar lehiaketaren sariak banatzea

–22:00-00:00 Mozorrotuta dagozantzat, 2x1 garagardo eta kalimotxo katxietan eta alkohol bako edarrietan

–22:00 Zorritorrock: Mamagigi's, Txapelpunk, Txarango eta Zartako-K



Txapelpunk taldea. a: Alvaro Caché

–01:00 Nagusien moztar lehiaketaren sariak banatzea

–Jatetxe eta tabernetan odolosteak afaltzeko

Irailak 9, zapatua

–11:00-14:00 Puzgarriak umeentzat

–12:30 Mezea

–13:15 Bertso saioa: Etxahun Lekue, Mialen Lujanbio, Onintza Enbeita eta Amets Arzallus. Gai-jartzailea: Josu Goi-ketxea

–13:30 Txixi-burruntzia, txosnagunean

–16:30-19:30 Puzgarriak umeentzat

–17:00 Yoga eskolatxoa adin guztientzat, eskolan

–19:00 *The Funes Troup* kale antzerkia, plazan

–20:00 Ekidazu abesbatza eta Donostia-ko Musikalis abesbatza, eleizan

–22:00 Txosnak zabaltzea

–23:00 Kontzertuak: Lágrimas de sangre, Skakeitan eta Garilak 26

–Jatetxe eta tabernetan, odolosteak afaltzeko

Irailak 10, domeka.

Bolalekuko jaiak

–09:30 "Andra Mari" IX. MTB Lasterketea, Zorribike alkarteak antolatua

–12:30 Mezea

–13:30 Paella txapelketan izena emotea

–15:00 Paella aurkeztea eta sariak

–16:00 Mus txapelketea

–17:00 Puzgarriak umeentzat

–19:30 Txokolatadea

–20:00 Erromeria, Hotza taldeagaz

KURTZEKO JAIK

Irailak 14, eguna.

Santa Kurtze Eguna

–12:00 Txupinazoa eta jaien hasiera

–12:30 Mezea, ermitan

–Kopaua, auzokideentzat

Irailak 15, barikua

–12:30 Mezea

–20:00 Kalejire, auzoko tabernetatik. KZ taldearen eskutik

–22:30 Erromeria, Broken Izotz taldeagaz

Irailak 16, zapatua

–10:00 Mahaia eta aulkiak banatzea

–11:00 Haurrentzako tailerrak, goizean; eta jolasak, arratsaldean

–11:30 Sukalki eta tortilla txapelketetan izen emotea

–13:00 Fanfarrea/txarangea

–14:00/14:15 Sukalkia eta tortilla aurkeztea. Ondoren, sariak banatzea

–14:00 Jolasetan parte hartzen dabena 12 urtetik beherako umeentzako bazkaria

–18:00 Bike-trial erakusketea

–20:00 Zozketak

–20:00 Afari-meriendea: solomo eta hirugiharra-ogitartekoak

–21:30 Diskofestea

–22:00 Sorgina erretzea eta suziak

–Diskofestea



OXANGOITI

Kutur Elkartea **TABERNA**

Aretxalde, 54 - tel.: 94 455 50 37
LEZAMA

LA GUN KOR

aretxalde, 68 - 48196 lezama
t. 944 556 538 - faxa 944 555 084
lagunkor@hotmail.com

ABIOLKARITZA FISKALA LABORALA KONTABLEA
ZERBITZU BULEGOA

HARRI-BILBO

HARGINTZA OROKORRA

LEHIO-ERTZEKO HARRIAK - KANTO HARRIAK - BARLASAIK - MAILAK
ARBUAK - TXIMINIAK - HARRI-HORMITUAK - XAFLA-LANAK

HARRIOIA: GURANGON
E-mail: recupesaharribilbo@euskalnet.net


LANTEDIA:
Kurtzea Industrialdea, z/g - 48196 LEZAMA
94 452 10 71

ERAKUSTOKIA:
Itxaropena, 2 - 48100 MUNGIA
94 674 33 40

ZORRIZKETAN

LEZAMAKO EUSKERA ALKARTEA

EUSKARAZ BIZI JAIK



BATA BESTEAGAZ LEZAMARROK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76

LEZAMAKO BATZOKIAK

Menuak
Pintxoak
Ogitartekoak
Odolosteak

batzokilezama@gmail.com
GARAIOLTZA AUZO 1208
946561719



Baserritarren Alkartea Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
t. 94 455 60 16
e-mail: lezama@fcae.org
Batzkideak: 144

*Pentsu
naturalak*

48196 LEZAMA Barrioak



S.T.T. LEQU
ERAKUSTOKIAK ETX. KESU-LENGUAK

F.: 94 455 64 17 T.: 94 455 61 90

Enaitz

TABERNA

Ogitartekoak
Anoak
Plater konbinatuak

94 455 42 15
Garaioltza, 74
48196 Lezama

TABERNA GAZTEI

Eguneko menuak
Ospakizunak

Aretxalde, 141 - 48196 LEZAMA
944554422 - gazteditaberna@gmail.com

LEJARRENE JATETXEA

Garaioltza auzoa, 12 - LEZAMA - T: 94 455 65 46



BOLALEKU

JATETXEA

Garaioltza, 1 - LEZAMA
94 455 41 10

- Hainbat menu
- Karta
- Ospakizunak
- BOLAPARK



Gaitiolta, 33 bis LEZAMA
620 15 36 93 - 94 633 81 07
9:00-20:00
www.centroecuestresolazpi.com
solazpi.zalditegia@gmail.com



Sondikoztarrentzako urteurrena

t: Gaizka Eguzkitza / a: Sondika KE

"Geurea herriko alkarte zaharrena da. Baina kluba ez gara gu, batzarkideak eta agintariak, edo teknikariak eta jokariak bakarrik; atzean herria dago eta hemen herriko gazte gehienek jokatu dabe. Beraz, ondo pasatu eta urteurrena ospatu gura dogu, baina herria ospakizunetan inplikatzeari be gura dogu, eurek be klubeko zati handi bat diralako", adierazo deusku Jose Luis Larreak taldeko presidenteak. Kluba maiatzetan hasi zan urtebetetzea ospatzeko ekitaldiak antolatzen, bai kirol arloan, bai gizarte arloan.

"Gure klubeko maila guztiak gozauko dira urteurrenagaz. Maiatzetan haur, kimu eta benjamin mailetako taldeek txapelketa bat jokatu eben. Txapelketea San Joan jaiakaz batera egin zan, eta han Txorierriko (Arteaga, Zamudio, Loiu eta Uritarra) zein kanpoko taldeek (Lemoatik, Mungiatik...) hartu eben parte. Era berean, ekainean, gazte eta kadete mailako taldeek maila bereko Bizkaiko selekzioen kontra partida bat jokatu eben".

Ganera, sondikoztarren nagusien taldeak Athleticen kontrako partida bat jokatzea gura dabe. "Oraindik ez dakigu noz, Athleticen esan behar deusku noz datorkion ondo. Gu zain gagoz". Beste alde batetik, Jose Luis Larreak taldeak omenaldia egin gura deutso emakumezkoen futbolari, Sondika talde aitzindaria

*"Herria
ospakizunetan
inplikatzeari be gura
dogu, eurek be klubeko
zati handi bat diralako"*

SONDIKA TALDEAREN DIAMANTEZKO EZTEIAK

Sondika Kirol Elkartek 75 urte bete ditu aurten, eta hori ospatzeko, maiatzetik aurrera hainbat ekitaldi antolatu dauz herrian. Klubeko batzarkideek uste dabe taldea erabat lotuta dagoela Sondikari, eta horregaitik, sondikoztarraz ospatu gura dabe urteurrena.

izan zalako. "Gu izan ginan emakumezkoen Lehenengo Mailan jokatu eban Bizkaiko lehenengo kluba eta hori aldarrikatu gura dogu. Horregaitik, Athleticen emakumezkoen taldearen kontra be jokatu gura dogu. Data zehaztu barik dago, agian irailean".

Gizarte arloan be antolatuko dabez ekintzak. Batetik, kirolari buruzko berbalak egiteko asmoa dabe irailean, Kultura Etxean, eta horreetan hainbat gai hartuko dira hizpide: medikuntza, elikadura, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko desberdintasunak futboleant... "Ideia polita iruditu jaku, adituak ekarri gura doguzalako. Hailanda be,

hatako bat Angel María Villar Espainiako Futbol Federazioaren presidentea zan, eta bera atxilotu dabenez, ez dakigu zer gertatuko dan. Ganera, Julen Lopetegui Espainiako selekzioaren entrenatzailea eta Josean Lekue Athleticen medikua be ekarri gura doguz".

Beste ekintza bat antxinako argazki-erakusketea da. Han klubaren historia jasoko da. Erakusketa herriko liburutegian egingo da, eta gero, argazkien panelek herriko hainbat taberna, denda eta txoko bisitatuko dabez. Amaitzeko, azken ekitaldia Santa Kurtze jaien ostean, irailaren 23an egingo dabe Larrabarrenako landan. "Jaiak guk antolatzen doguz eta



auzoKide
Finken administratzailea

LORENA GAMBOA AGUIRRE

Txorisol 4, behea B 634 410 470
48150 SONDIKA auzokidefincas@gmail.com

Goiri'78 s.l.
Zerbitzu ofiziala

Izarza Pol.
48150 Sondika
Bizkaia

94 453 25 15
94 453 39 31

GALAIISA
Estetika eta ile-apaindegia

94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

Athleticeen kontrako partida bi jokatu gura dabez: bata, mutilen kontra; bestea, nesken kontra

polita da urteurrenari bertan amaiera emotea. Goizean, beteranoek partidatxo bat jokatu gura dabe eta geroago, kantadantza-poteoa egingo dogu. Txuma Olagüe talde koralak, Gorantzaileak dantza taldeak eta Ipar Elaiak herriko txistulariek hartuko dabe parte bertan, baita Garikoitz Mendizabal Bilboko Udal Txistulari Bandako zuzendariak be. Ostean, herri bazkaria antolatu dogu”.

“Sondika bizirik mantendu gura dogu eta horretarako, edozein aitzakia da ona. Eta holan, jente barria, Sondikara azken urteotan bizi izatera etorri dana, erakarriko dogu eta sondikoztar bihurtuko doguz. Hirurogeita hamabosgarren urteurrenenan guztiak inplikau gura doguz. Dantza-poteoa egin gura dogu herriari bizitasuna ekarteko. Herriarentzat jai eguna izatea gustauko litxakigu”.

Gaur egun

Sondika Kirol Elkarteak egitura sendoa dauka gaur egun. Guztira, 160 jokalaririk, zazpi taldek eta beste 30-40 lagun gehiagok –teknikari, laguntzaile eta batzarkideen artean– osatzen dabe kluba. Sondikako taldeek maila guztietan jokatzen dabe: Ohorezko, Gazte, Kadete, Haur, Kimu eta Benjamin mailetan.

Halanda be, klubak arazoak be badauz. “Dirua eta jente barria beharko geunke, beste klubetan gertatzen dan moduan. Ez naz kexatzen, baina Txorierriko beste herrietako Udalek diru gehiago emoten deuse euren futbol taldeei. Eta ez naz kexatzen, benetan, Udalak itzelezko atxikimendua adierazoten deuskulako. Beraz, diru gitxi dogunez, gogor egin behar dogu lan: txosna ipintzen dogu jaietan; zozketak eta loteria saltzen doguz.... Era berean, belaunaldi barriek lekuko hartu beharko leukie batzarrean. Guk denpora pilo bat daroagu eta hori ezin da izan”. Arazoak arazo, presidenteak uste dau “klubak, behintzat, beste 75 urte iraungo dauala”.



Futbola orain dala 100 urte jaio zan Sondikan

Sondika Kirol Alkarteak 75 urte daukaz, bai, baina aurretik be jokatzen zan futboleko herrian. Hasiera batean, 1913an, Olan, Izartza bidean egoan futbol zelaia eta bertan Txorierriko zein Bilboko lagunek jokatzen eben. Garai hatan ez egoan Bizkaiko Federazinorik, eta ondorioz, gazteek erronkak botatzen eutsiezan alkarri: auzo batzuk besteen kontra sartzen ziran lehian. Orduan hasi zen Sondika izena erabiltzen.

Urtebete beranduago, 1914an, futbol-zelai gitxi egoan Bizkaian eta, horregaitik, Bilboko Eusko Gaztedi taldeak Kirolokietako futbol zelaia eraiki eban, Sondikako aireportuko pistaren ondoan. Zelaia handia zan eta bertan 5.600 lagunentzako lekua egoan, haietako 800, jezarrita. Gaur ezagutzen doguzan zelaia baino, landak ziran, baina tira, bertan futboleko jokatzeaz

gain, atletismoa eta palankarien probak be egiten ziran. Zelai horretan Asua Txiki Sondikako taldea be hasi zan jokatzen. Halanda be, Kirolokietak ez eban luze iraun, aireportua handitu behar izan ebelako, eta ondorioz, Kirolokietak bota behar izan zan. Bere orde, beste bat egin zan handik gertu, Mingolarra.

CD Sondika 1929ko abuztuaren 10ean federatu zan, baina urte berean, urrian, izena aldatzea erabagi eben. Antza danez, Athleticek 11 gol sartu eutsozan lagunarteko partida baten eta emotza lotsagarri hori alde batera ixteko, SD Amaika Bat aukeratu eban izentzat. Azkenean, Sondikako taldeak bere jatorrizko izena berreskuratu eban 1942an eta handik urtebetera, 1943ko ekainaren 15ean, hain zuzen be, barriro sartu zan Bizkaiko Futbol Federazioan.

Euskal blogintzaren harira



t: Iurdana Acasuso, Azkue Fundazioko zuzendaria

Aurtengo urtarilean Azkue Fundazioak eta Argiak Blogetan! Euskal Blogariak lehian lehiaketaren bigarren edizioari hasiera eman genion. Lehiaketa honen helburua, berriz ere, euskarazko blogak zabaltzea, sustatzea, ezagutarazi eta, bide batez, zenbat blog dauden euskaraz, zein gai lantzen dituzten eta beste hainbat detaileei buruzko azterketa egitea izan da. Bost hilabete hauetan gaiak luze eta sakon hitz egiteko berbabidea ematen duela ikusi dugu eta zentzu horretan pozik gaude egindako ekarpenagatik. Izan ere, egitasmo honen harira inkesta bat egin eta jardunaldi bat antolatu ditugu eta neurri baten gaia mahai gainean jartzea lortu dugula esan dezakegu.

2001. urtean lehenengo bloga sortu zenetik gaur arte aldaketa nabarmenak eman dira euskal blogosferan: proposamen pertsonalak eta kolaboratiboak sortu dira, blogariak plataformak erabiltzen

hasi dira, hedabideak besteen artetik nabarmendu dira, puntu eus domeinua sortu da, blogariak tratatzen dituzten gaiak gero eta anitzagoak dira... Hala ere eraldaketa honek oraindik badu garapenerako espazioa. Blogintzak oraindik badu euskaldunoi zer eskaini, besteak beste, gai berriak jorratzeari eustea eta formatu berriei probatzea.

Euskarazko Blogen komunitatea txikia dela aitortzen dugu bai eta blogariak beraien proposamentzako toki ikusgarria lortzeko zuhur lan egin behar dutela. Bi osagai nahasten dira ekuazio honetan: pertsonak eta teknologia.

Blogintza idazketa ariketa den heinean funtsezkoa da edukia kalitatezkoa izatea, funtzionala, freskoa, maiz eguneratzen dena, balio erantziduna, e.a. Ildo beretik sortzailearen marka propioaren garrantzia ere ezin dugu ahaztu; egilearen nortasunak bere bloga besteen blogen artean nabarmentzeko balio duela.

Azkueren konpromisoa

- Erabiltzaileak eta sortzaileak ahalduzko trebakuntza ekintzak bideratzen ditugu, urrian, adibidez, teknologia laborategiak antolatuko ditugu.
- Euskal erabiltzaileen artean nabigazioa euskaraz bultzatzeko sentsibilizazio lanean jarraitzen dugu.
- Blogari komunitatea babesteko eta hazi dadin euskarazko blogarien ataria sortuko dugu: www.blogetan.eus. Hau, komunitatea sendotzeko tresna bilakatuko dugu.

Kalitatezko produktu horri teknologia lagun diezaiokite interneteko oihanean leku ikusgarrian kokatzen. Jendeari interesa lekizkiekeen edukiak badaudela erakutsi behar zaie.

Parte batetik blogariak berak trebatuz lortuko da. Beldurra kendu, dudak argitu, ezagutza teknikoan sakondu, komunikazio estrategia landu... hau da, blogariak ahaldundu. Dagoeneko badaukaguna zaindu eta hobetzeko bidea jorratu behar da.

Bestetik, gizartea bera trebatuz. Horretan berebiziko garrantzia du euskarazko nabigazioa bultzatzea. Gure lehenengo hizkuntza zein den interneteko jardueran nabigazio-hizkuntzaren bidez adierazten dugu eta, honen arabera, edukia hizkuntza batean edo bestean erakutsiko zaigu. Euskarazko blogetan dagoena jasotzea lehenetsi nahi izanez gero, geroz eta jende gehiagok izan beharko luke bere nabigazioa euskaraz konfiguratuta.

TURREGOTTI
JATETXEA
Laurgoia etorbidea, 27
48180 Lolu-Bizkaia
T-Faxa: 94 453 24 40
restauranteturregotti.com

elekma
LURRATZENEN BAT DUTEN ETXETRESNA ELEKTRIKO BERRPAK
TELEBISTAK ETA ETXETRESNA ELEKTRIKO TIRAK
Leherengo markak • Pizkorri onak:
BOSCH, SIEMENS, BALAY

Tasari etorbidea, 25-3 N • 48180 Lolu
T: 944 539 232
www.elekma.es

Jatetxea **SAN ISIDRO**
EUSKO ORELETA ESPEZIALIZATUA ETA ETXKO GOZOGINTZA APARTA
ESKONTZAK, BATAIOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua • Laneko zerbitzua • Jantoki pribatuak
Jantoki bakoitzean 180 toki • Sukaldaritza tradizionala

Telefono 94 454 07 00
Fax 94 454 14 58

Mungai etorbidea, 25
48180 DEIO

Filosofia apur bat

“Filosofia baino, oilozopia hobe”

t: Juan Luis Goikoetxea / a: Aritz Albaizar

Errukiz beterik begiratu leuskio pirata begibakarrak mugikorra eskuan dala begiak pantailara josita daroazan neskari, ze begiak ez eze burua be pantailan sartuta doa, inguruko pertsoneri nahiz txoriei ez ikusia eginik.

Gazte hori robotikak eta informatikak liluratuta bizi da. Baina ez bera bakarrik, LOMCEko agintariak eurak be ikasgaien familiako ahizta txiroztat hartu dabe filosofia-eta. Era horretara, nekez lortuko da gaurko wifiek inguratutako teknologia-ren munduan humanismo klasikoak bizilekua aurkitzea.


Irakasleek, bestalde, hasarre dihardue filosofia ikasgeletatik baztertzeko joaren aurrean. Arrazoi osoz, gainera, jakitun diralako filosofiari barik zein hutsune larria sortzen dan ikasketetan. Irakasleak, filosofiaren talaia begiturik, ohartzen dira zelan gai hau izan dan jakintza-arlo guztien topagunea. Enrike Zuazuak dino filosofia eta matematikak, esate baterako, ahiztak dirala, eta logika gaian topatzen dabela alkar (1).

“Filosofia baino, oilozopia hobe” errepikatu izan da euskaldunon artean, gai hori oso praktikoa ez dala erakutsiz. Edo-

zelan be, konturatu behar genduke, bate-tik, botere politikoa bera be ez dala bizi ideia filosofikoetatik kanpo, eta bestetik, gehiegizko informazio sasoi honetan,

inoiz baino beharrezkoagoa dala filosofia eskaintzen dauan pentsakera kritikorako gaitasuna, informazioak ez dakar, berez, jakituria-eta. Nahiz eta, itxura baten, telefono mugikorretako mezu mordoek asko dakigula pentsatu eragin, filosofia lehen baizen beharrezko da geure egunotan be.

(1) Enrike Zuazua, Filosofiaren defentsan, 87, 2017.



Muji
TAILLERAK

Inbisa industrialdea
Astintze kalea 6-16-17 C2 Pabilola
48160 Derio / Bizkaia
688 847 633 / 946 572 315
iker@muji-tallerak.com


TALLERES JUAN ANDRES
AUTOMOBILAREN ELEKTRIZATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torrelarragotti ind., 8 - 216 Pab.
Tel.: 94 452 07 09 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

ASADOR FUENTENE berria
"lur eta itsasoko baserria"

Gosariak
Afariak
Enpresa-bazkariak
Ekitaldiak
Jantoki pribatuak

ESPEZIALITATEA:
Okela eta arraina
txingarretan erreta

LEKUNBI-AUZOA 26
ZAMUDIO (BIZKAIA)
94 452 23 79
www.asadorfuenteneberria.com

PATXI
KOOP

PATXI KOOPERATIBA ELKARTEA
Nafarroa nagusia - Etxebarri 4, 48170 Zamudio (Bizkaia) - Tel 944 522 587 - info@patxi.coop - www.patxi.coop

GORBEIA MERTZERIA

Gorbela kalea, 7
ZAMUDIO
94 655 90 06



Patata- eta saltxitxa-entsalada alemaniarra

a: losantosdeclara.com

Osagaiak:

- Bost patata ertain (egosiak).
- Hiru saltxitxa alemaniar handi.
- Hiru ozpin-pepino handi.
- Apio-adar bat.
- Koilarakada bi kaparrondo.
- Sagar handi bat.
- Tipuleta bat.
- Hazur bako oliba baltzak.
- Urdaiazpi egosi-xerra bi.
- Arrautza egosi bi.
- Koilarakada txiki bi mostaza.
- 200 ml maionesa.
- Limoi-ur apur bat.
- Gatza, piperbeltz baltza eta orioa.

Prestetako erea:

Osagaiak txikituko doguz: patatak, arrautzak, apioa, olibak, tipuletea, sagarra, ozpin-pepinoak eta urdaiazpiko egosia. Zatiak ontzi handi batera botako doguz. Saltxitxak zartaginean arin frititu eta dadotan moztuko doguz. Ontzira botako doguz, beste osagaiakaz batera. Oliba orio apur bat eta piperbeltza botako doguz. Osagaiak ondo irabiau eta kaparrondoak botako doguz.

Beste ontzi baten maionesea, mostazea eta limoi-ura nahastuko doguz. Entsaladeari bota eta dana ondo nahastuko doguz. Ontzia papera gardenez estali eta hozkailuan sartuko dogu ordubete eta erdian.

Etxeko sukaldaritza

Berdelak saltsa berdean

t: M. Lekerika / a: loscaprichosdejorge.com

Osagaiak:

- Lau berdel-xerra
- Zainzuri-lata handi bat
- Lau berakatz-atal
- Tipuleta bat
- Perrezila
- Orioa
- Gatza
- Koilarakada bat urin.

Prestetako erea:

Tipuletea eta berakatzak xerretan ebagi eta zartagin baten erregosiko doguz, su ezitan. Urina, perrezila eta zainzurien ura gehituko doguz. Handik hiru minutura, berdelak sartuko doguz, azala gorantz. Beharrezkoa izanez gero, ur apur bat gehituko dogu. Estalgia ipini eta su ezitan eukiko dogu bizpahiru minutuan. Zainzuriak sartuko doguz. Apur bat berotu eta mahaira aterako dogu.



Izpilen
PARAFARMACIA BELAR-DENDA

Sabino Arana, 3 lonja - 48150 SONDIKA (Bizkaia)
94 655 80 00 - 689 99 88 43 - izpilen@gmail.com

IRATXO
gozotegia

larta pertsonalizatuak
trufak
terrikak
pastinak
postak

Mikel Zarate, 2 - 3. lonja • Sondika, 48150 • 94 443 89 19

Peñasko
arraindegia

Mendiko, 4
48170 Zamudio
Tel: 94 452 0808

TXORIERRI
Inmobiliaria

Justo Ajuria, 2 Sondika - Bizkaia
Tel./Faxa: 94 471 12 82 - 94 471 18 11
txori-erri@euskalnet.net

zabegandik gertu

ABIOLKULARITZA - TASAZIOA
ALOKATZEAK - ERKUALDARITZA
SALEROKETAK
SEGUROS BILBAOEN AGENTZIA


yedra
floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Telefona: 94 453 14 57 - yedrainterflora@hotmail.com

RPM
MAYORISTAS INFORMATICOS

ENPRESETARAKO INFORMATIKA
SAREEN MANTENIMENDUA
ZERBITZU TEKNIKOA

Avda. Pinoa 2C Nave 5 - 48170 - Zamudio
Tel: 944521544 - http://www.rpmmayoristas.com



aritz eta nagel
aikor 2017ko uztailaren 16an

Gomendioak

LITERATURA: NAGUSIAK

–Trump, amesgaizto amerikarra, Joseba Zulaika, Larraitx Ariznabarreta, Juan Garzia Garmendia, Jaqueline Ur-la, William A. Douglass, Olatz Arrieta, Unai Pascual eta Joseba Gabilondo.

–Gerrak ez du emakume aurpegirik, Svetlana Aleksievitx.

–Berriak jaio ginen, Jon Maia.

HAUR ETA GAZTEENTZAT

–Eskularru beltzak, Jasone Osoro eta Jose Larretxe Josevisky.

–100 kontu ondo ezagutzeko giza gorputza, Alex Frith eta Federico Mariani.

–Gabon!, Soledad Bravi eta Benoit Marchon.

MUSIKA

–Margolaria, Mikel Urdangarin.

–Beti eta betiko, Joselu anayak.

–Ereñotzu, Xabi Solano.

–Zuei, Maider.

Sudokua

				9	2			
			8	5				
			7				2	
				8				9
	2	3	6					
	8	4				6		
		6		4	8			5
4					5		7	
5				7		3		6

6	4	3	1	7	2	8	9	5
2	7	8	5	9	6	4	3	1
5	6	1	8	4	3	7	2	9
7	3	9	6	2	5	1	8	4
8	5	7	1	4	3	6	2	9
1	9	3	2	1	8	7	4	5
8	4	9	7	3	6	5	1	2
3	6	4	9	5	8	1	2	7
4	8	2	7	9	1	5	6	3

RUBÉN
ERLOJU-DENDA BITXITEGIA

Lehendakari Leizaola plaza, 3
48170 Zamudio
94 452 14 49

ZAMUDIO
Loteria Nazionale

Leizaola L. plaza, 7
Tel.: 94 452 09 59
Faxa: 94 656 69 95
josuastorkiza@gmail.com

Nire Autocasion NA
IMPORTAZIOA ETA SALMENTA

MUNGIALDE ETORBIDEA, 3 48160 DERIO-BIZKAIA
Mobiak: 686 97 06 41 - 649 16 77 12
Telefonoa-Fax: 94 454 51 92
www.nireautocasion.com info@nireautocasion.com

Erakusketak

Derio

- > Gurutze-puntuko koadroak. Irailaren 5etik 28ra, Kultur Birikan. Pili Rodríguez eta Pili Diezen eskutik.

Ikuskizunak

Derio

- > Magia jaialdia eta zirko azoka. Irailaren 15etik 16ra, Aldekone eta Sollube kalean.

Zamudio

- > *Dirty dancing*, Euskalduna jauregian. Irteera: irailaren 7an, 19:30ean, autobus galekutik.
- > Umeentzako ipuin saioa. Irailaren 23an, 11:30ean, liburutegian.

Irteerak

Txorierri

- > Kilometroak. Irailaren 24an, Oñatin.

Zamudio

- > Pirinioak. Irailaren 8tik 10era. Arroeta mendi taldeak antolatuta.
- > Donostiako akuaria eta Getariako Balenciaga museoa. Irailaren 30ean, Lagunandre elkarteak antolatuta.

Lezama

- > Dolomitak (Italia). Abuztuaren 19n. Bost eguneko irteera. Gailur mendi taldeak antolatuta.
- > Alleko-Sarastarri. Irailaren 9an.
- > Larrako mendigunea (Pirinioak). Irailaren 23tik 24ra.

Jaiak/ospakizunak

Derio

- > San Migel. Irailaren 29tik aurrera.

Zamudio

- > San Migel. Irailaren 29an.

Larrabetzu

- > San Migel. Irailaren 29tik urriaren 1era, Eleixeta auzoan.

Kirola

Zamudio

- > Zikloturista. Irailaren 16an, 09:30etik aurrera.

Txapelketak

Zamudio

- > III. Rally erronka. Irailaren 9an, Zamudio Racing elkarteak antolatuta.

Bestelakoak

Derio

- > Udal ikastaroak. Izena ematea: irailaren 6tik 18ra.
- > Mendizaleak gogora ekartzeko eguna. Irailaren 18an, 08:00etan, Nagusien etxean. Untza mendi taldeak antolatuta.

Zamudio

- > "Gero arte" birziklapen kanpaina. Irailaren 2an, 11:00etan, Sabino Arana plazan.
- > Udal ikastaroak. Izena ematea: irailaren 22ra arte.

Lezama

- > Udal ikastaroak. Izena ematea: irailaren 11tik 22ra, liburutegian.

Larrabetzu

- > Berdintasun plana diseinatzeko herri batzarra. Irailaren 21ean, 18:00etan, Anguleri kultur etxean.
- > Udal ikastaroak. Izena ematea: irailaren 29ra arte. Informazioa, Anguleri kultur etxean.



ERREKA
JAT ETXEA

Eguneko menua, asteburuko menu berezia, karta, enpresen bazkariak, jaunartzeak, familien bazkariak

Arteaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfnua: 94 452 14 19
Faxa: 94 452 26 29

Alc-apaindegia
M^a Antonia Llodio

Txorierri etorbidea, 6
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

JB Construcciones-Reformas
IÑIGO BARCENA
Igeltserotza orokorra

Especializateak:
Xafra-lanak
Zoruak

944522910 - 865703312 - 652773016

Hortz-klinika
IDOIA ZUBIETA

Osasun-zentroa & Hortz-estetika
HORTZ-INPLANTEAK - ESTETIKA-ORTODONTZIA

Aretza doktorea, 11. - 1. azk.
48011 BILBAO
T: 944 416 322

Urbe Plaza, 1
48170 ZAMUDIO
T: 944 521 370

Garmendia
ardoak

Pinoa pol., P-3B
ZAMUDIO
Tel./Faxa: 94 452 00 49

luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazari kalea, 4 (Ionja) Tel./Faxa 94 452 11 60
48170 Zamudio - Bizkaia

ZELAN?

POSTAZ:

Aikor!lagun fitxa(*) bete eta bidali:
Aresti, 2 behea - 48170 - Zamudio

E-POSTAZ:

aikortxori@aikor.com helbidera

TELEFONOZ:

94 452 34 47
688 86 41 35

AHOZ:

Zure herriko euskara
elkarteko kideren bati esan

(*) Fitxa aldizkarian bertan eta
erakundeetan, liburutegietan,
komertzioetan... utziko ditugun
diptikoetan topatuko duzue.



Egin zaitez Aikor!lagun

Etxe bat, lagun bat



Egin zaitez Aikor!lagun



Izen-abizenak: _____

Helbidea: _____

Telefona: _____

e-posta: _____

IBAN+Bankuko zenbakiak: _____

Urteko kuota: _____

Aldizkaria jasotzen duzu? _____

Sinadura _____

30 euro _____ Beste bat _____

Orri hau helbide honetara bidali:

Aikor! Aldizkaria

Aresti kalea 2, behea - 48170 - Zamudio



15/1999 Lege Organikoari jarraituz, hau jakinarazten dizugu: formulario honetan sartzen dituzun datu pertsonalak fitxategi batean gordetako dira. Fitxategiaren erantzulea TOTODAN TXORIERRIKO EUSKARA ELKARTEEN FEDERAZIOA da eta datuak kudeatuko ditu. Kontrakoa esaten ez diguzun bitartean, zure datuak kudeatzeko baimena dugula ulertuko dugu. Dena dela, edozein momentutan datuok eskuratu, baliogabetu eta zuzendu ahaliko dituzu. Horetarako, helbide honetara jo beharko duzu: ARESTI KALEA 2-BEHEA, 48170 ZAMUDIO (Bizkaia).

BERTOKO

musika tresnak eta kultura

2017/2018 ikasturterako
eskaintzarik onenak:

alboka
txalaparta
pandero eta
paluak
euskal kantak
trikitixa
dultzaina

Matrikulazioa BERTOKOren lokalean
Irailaren 4an, 19:30etatik aurrera (tresna guztiak)
Klaseen hasiera irailaren 11tik aurrera

615 749 570

bertokozamudio@gmail.com

www.aikor.com/txokoa/bertoko

erdu eta emon izena!

